

Andrazkoen Arratia futbol taldeak kategoriagi eutsi deus

14. orrialdea

Idoia Asurmendik kontzertuak emongo ditu Igorren eta Ubiden

Idoia Asurmendi, "Idoia" kantariak *Ilun eta abar* bere diskoa aurkeztuteko kontzertuak emongo ditu hilaren 26an, 19:00etan, Igorreko Goiko Plazako frontoian, eta hurrengo egunean Ubideko jaietan, ordu berean. **17. orrialdea**



Bertan behera urri lehenengoan egitekoa zan Dimetal jaialdia

16. orrialdea


Aldundiko lau langile epaitu ditue Irune Costumeroren kasua dala-eta

Hilaren 7tik 9ra izan zan epaiketea Bizkaiko Lurralde Auzitegian.

Irune Costumerori alabearen zaintza kendu eutsien 2017an, Guraso Alienazio Syndrome (GAS) faltsua argudio moduan erabilita. Arratiako Mobimentu Feministek konzentrazioak egin ebazan. **8., 9., 10. eta 11. orrialdeak**



Bilboko Kalealdian izango da Janire Etxabe



Janire Etxabek Dimegaz alkartea sortu eban 2017an jantza bertikaleko ikus-entzunezkoak zabalduetako eta urte batzuk berandua-go, Harrobi Dantza konpainia. Garagarriaren 2an, Bilboko UPVko eraikinaren kanpoko paretan jantzan egingo dabe Harrobikoak. **12. eta 13. orrialdeak**

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Jaiak edo ekintza kulturalak antolatu ditue herri eta auzuneetan

Sanjuanak Bedia eta Ubide herrietako jaiak dira, baina gainera, auzune askotan sanjuan sua bizteko ohiturea dago. Aurten, COVID-19aren neurri murriztaileak lehengo moduko jairik ahalbideratu ez arren, jai ez jentetsuak edo ekintza kulturalak udan zehar antolatu dabez udalak. **5. eta 7. orrialdeak**

LEMOA

Arraibi barriztatuteko aurrekontua onartu dau Lemoak

Lanak hamabi hilabetetan egitea aurreikusi da eta horretarako 1.528.000 euroko aurrekontua dago. Hiru fase ditu proiektuak eta 2018an patioan egindako lanai jarraipena emongo deussee, oin onartutakoak. **6. orrialdea**

AREATZA/LEMOA

Ugerlekuak erabilteko internetez egin behar da erreserba

Hilaren 12an zabaldu ziran Lemoako udako ugerlekuak eta 21ean zabalduko dira Areatzakoak, eta herri batekoak zein besteak zabalik egongo dira urri lehenengoaren 12ra arte.

Egun, indarrean dagozan COVID-19aren neurriak dirala eta, ugerlekuak aforo murriztua daukie. Aldagelak eta dutxak zarratuta egongo dira eta ezarritako segurtasun eta garbitasun neurriak betetea derrigorrezkoa izango da.

Lekua hartzeako internetez egin behar da erreserba. **5. orrialdea**

CEPA Galdakao HHI

IKASTETXE PUBLIKOA ETA OFIZIALA
Helduen heziketa

·Euskara
·Gaztelania
·Ingelesa/Frantsesa
·DBH titulua
·Informatika
Eta gehiago...

Matrikula egiteko epea: ekaina osoa eta irailaren 1etik 15era.

www.epagaldakao.com · 94 456 60 98

Ellexalde 8, Kultur Etxea (Igorre) eta Arraibi 2 (Lemoa)

BICIS

Arratiarren dendea

JESUS CANAS TARAVILLO
Tel. 94 630 92 20
jscanas@movistar.es
Gregorio Mendibil kalea, 12

BICIS BIZI
www.bicisamonsbiza.com · AMOREBIETA-ETXAKO

Literatura txokoa

NI ETA GU

Itsasoari agur. Pako Aristik itsasoari idatzi deutso. Bere zazpigarren poema liburu honetan begi bik gorde leikien ozeanoaren gainean idatzi dau, arrantzale eskuak konta leikieken sakoneraren gaineko poema-liburu berezi bat da hau, askatasunaren itsaskirriaren inguruko tratadua: "Harremanen nomada naiz,/lagunez lagun bidaiatzen dut,/eta tratua ez da fideltasuna,/joaten uztea baizik".

Eta itsasook Getariakoak dira, baina izan eitekezan Oriokoak, edo itsasorik ez dan mundu krudel batekoak. Gordintasunetik beste dauka-eta liburu honek xamurtasunetik, zirt edo zart egiten dabe poemak, ez dira inondik be irakurleak zer esango begira geratzen. Maitatuko dozu Pako Aristi, edo

amorratuko zaitu Pako Aristik. *Ni eta gu* da liburu bat itsasgizonai dedikatua, ez da liburu bat etxeko sofán komodo-komodo literatur kritikak idorreko lurlan legez egiten dauzan burges txikiarentzat.

Ni eta gu. Zazpigarren uhina mozkortuta legez irakurri dot. Poesiaren funtsaren funtsa topau dot poema narratibo ederrotan. Lerrook idazten dodazen bitartean akabetan nabil liburua, eta bizitzaren kintesentzia balitz legez jabilit Pako Aristi erakusten, irakasten, mistikearen eta bertsolaritzearen arteko genero jaso bat asmatu izan baleu legez, zer dan garrantzitsua eta zer ez: "eskua altxatu zuen Sarak/dena ulertu balu bezala,/agur-agur,/airean idatziz/minaren hitzek/uzten ez ziotena". Berba dagit ume baten heriotza injustuaz, zeina nahasten jatan izurdekume baten heriotzeagaz,

liburu bihotzbako eta errukior honetan nabigatzen dodalarik erdi zorabiatuak hainbeste olatu eta kontraesanegaz, eta denporearen joanaz egiten deusta berba Pako Aristik, eta krudelkeriez, eta haizeez eta paisajeez, eta aldi bereko amodio guztiez, finean esateko bizitzak merezi dauala, baina bizi egin behar dala legeen eta tabuen kontra.

Pandemiak mesede egin deutso poesiari. Pako Aristik beste kostalde batzuk deskubridu ditu. Gure poeten artean subsiboenak barriro erakutsi deusku bera dala gure poeten artean sensibleena. *Ni eta gu* metafora bat baino ez da. Hermetikoa dauka bihotza, irisgarria otera bere azal fina. *Ni eta gu* da opari bat, zazpigarrena, Pako Aristik egin deuskuna bere inkonformismo eder horren talaiatik.



Pako Aristi
Ni eta gu
Erein argitaletxea, 2021
176 orrialde

TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak
Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
SOS DEIAK 112
Guardiako Farmaziak
09:00etatik 22:00etara
Bagilaren 14tik 20ra
Goikoetxea. Dima. Ugarana 33
Tel.: 94 673 70 54 eta 619 524 057
22:00etatik 09:00etara
Sarasketa. Amorebieta-Etxano.
Bagilaren 21etik 27ra
Ibarrola. Zeanuri. Arregia kalea 1
Tel.: 94 673 93 95 eta 620 262 937
22:00etatik 09:00etara
Iruarizaga. Amorebieta-Etxano.
Bagilaren 28tik garagarriaren 4ra
Andrea Lavin Abadia. Lemoa. Atutxa Sailburua 1
Tel.: 94 631 30 18 eta 652 733 820
22:00etatik 09:00etara
Gutierrez. Amorebieta-Etxano.
Zeberioak ez dau guardiarik egiten.
Urte osoan
22:00etatik 09:00etara
Ana Gometza. Francisco Kortabarria 2. Basauri.
Medikuak
Arantzazu: 94 600 74 63
Artea: 94 673 92 11
Areatza: 94 631 71 52
Bedia: 94 631 34 13
Dima: 94 680 19 74
Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16
Ubide: 945 45 03 61
Zeanuri: 94 673 91 49
Zeberio: 94 648 01 85
Udaletxeak
Arantzazu: 94 631 56 89
Artea: 94 673 92 05
Areatza: 94 673 90 10
Bedia: 94 631 42 00
Dima: 94 631 57 25
Igorre: 94 631 53 84
Lemoa: 94 631 30 05
Ubide: 945 45 03 22
Zeanuri: 94 673 91 46
Zeberio: 94 648 10 79
Arratiako Udalen Mankomunitatea 94 631 17 17 / mankomunitatea.arratia@bizkaia.org
Gorbeialde Landa Garapenerako Alkartea
94 631 55 25 / gorbeialde@gorbeialdea.com
Areatzako Parketxea 94 673 92 79
Igorreko Kultur Etxea
94 673 62 51 / kulturetxea@igorre.net
Euskotren 94 433 33 33
Areatzako Notariotza 94 673 92 26
Errota Fundazioa
688 854 543 / info@erota.eus
Arratiako Musika Eskola
94 631 73 52 / www.arratiakomusikaeskola.eu

Bizkaibus 94 612 55 55
3917 linea. Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri
Bilbotik. Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro. Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.
Zeanuritik. Lanegunetan: Lehenengo 05:00etan. Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era. Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan. Zapatuetan: Lehenengo 05:00etan. Orduro: 05:45etik 21:45era. Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.
3911 Linea. Bilbo-Galdakao Ospitalea-Lemoa-Durango-Elorrio
Bilbotik. Lanegunetan: 07:00etatik 22:00etara orduro. Zapatu eta domeketan Durangoraino.
Elorriotik. Lanegunetan 06:45etik 20:45era orduro.
Durangotik. Lanegunetan: 07:10etik 21:10era orduro. Zapatuetan: 06:30etik 21:30era orduro. Jaiegunetan: 07:30etik 21:30era orduro.
3912 Linea. Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango-Ermua-Eibar
Bilbotik. Lanegunetan: 06:30etik 22:30era orduro. Jaiegunetan: 07:30etik 22:30era orduro.
Eibartik. Lanegunetan: 06:00etatik 21:00etara orduro. Zapatuetan: 06:20tik 21:20era orduro.

Jaiegunetan: 07:20tik 21:20era orduro.
3925 linea. Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide
Bilbotik. Lanegun, zapatu eta jaiegunetan, Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro. Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.
Ubideitik. Lanegun eta zapatuetan: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin. Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik behin.
* 08:45ean, 14:45ean eta 18:45ean urteten diran zerbitzuak Barazaren gelditzen dira.
Otxandiotik urtekerak. Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro. Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.
3927 linea. Bilbo-Lemoa-Zeanuri (autopistatik)
Bilbotik. Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro. Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.
Zeanuritik. Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik 21:15era orduro. Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.
3928 linea. Artea-Zeberio-Ugao
Zeberiotik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan: 07:00, 08:20, 09:10*, 11:00; 11:45*, 14:10, 15:00, 16:10, 18:30*, 20:20. *Basauriraino bakarrik.
Basauritik Zeberiora. Lanegun eta zapatuetan: 10:00, 12:45*, 19:20. *Artearaino bakarrik.

Ugaotik Zeberiora. Lanegun eta zapatuetan: 07:20, 08:40, 10:20, 11:20, 13:05, 14:30, 15:30, 16:30, 19:40, 20:40.
Arteatik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan: 06:50, 08:00, 14:00, 16:00.
Ugaotik Artea. Lanegun eta zapatuetan: 13:05, 15:30, 20:40.
Igorretik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan: 07:55ean.
Ugaotik Igorrera. Lanegun eta zapatuetan: 07:20ean.
Zeberiotik Arrigorriagara. Jaiegunetan: 08:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.
Arrigorriagatik Zeberiora. Jaiegunetan: 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.
La Union 94 427 11 11
Bilbo-Gasteiz
Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urteten dau eta Otxandiokoak 16:00etan. Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan urteten dau Bilbotik. Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urteten dau eta Otxandiokoak 18:30ean.
Gasteiz-Bilbo
Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan urteten dau Gasteizetik eta Otxandiokoak 10:30ean. Zapatuetan: Otxandiokoak 10:30ean urteten dau Gasteizetik. Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urteten dau Gasteizetik.

Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea.
Helbidea: Herriko Plaza 24, 48142 Artea.
Telefonoa: 94 631 73 14.
Helbide elektronikoa: begitu@topagunea.com
Webgunea: www.begitu.org
Zuzendaria: Iñigo Iruarizaga.
Erredakzino burua: Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.
Maketazinoa: Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarizaga.
Publizidadea: Iñigo Iruarizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.
Banaketea: Iraia Herrero eta Laiene Pagazaurtundua (Arantzazu, Artea eta Ubide), Ibai Milikua (Areatza), Unai Agorreta eta Xabier Beitia (Bedia eta Lemoa), Amaia Uriarte (Dima), Iker Perez eta Eguzkiñe Zuluaga (Igorre), Iratxe Arribas (Zeanuri), eta Andoni Brizuela (Zeberio).
Tiradea: 7.300 ale.
Inprimategia: Iparragirre Editoriala.

Ale kopurua 7.300 / Lege gordailua SS-512/02 / ISSN zenbakia 1579-5519



Babesleak:



ZEURE BERBEA

N-240aren inguruko adierazpena

Arratiako EAJ-PNVkoak pozik ga-
goz N-240 errepidean (besteak
beste) Bizkaiko Foru Aldundiak
3,5 tonatik gorako garraioari eza-
rriko deusan "Erabileragaitiko
ordainketa" neurri barria martxan
ipini dalako. Honek ibilgailu astu-
nen joan-etorriak arindutea eka-
rriko dau. Gainera, errepidearen
auto-ilarak arindu egingo dira,
CO2 isuriak %10 murriztuko dira,
istripu-tasea be murriztuko da eta,
azkenik, Arratia bailarako errepide-
deetatik kamioi gitxiago pasauko
dira; zehazki, inguru honetan
zirkulatzen daben kamioi bitik bat
kenduko da, erdia, hain zuzen be.
Zalantza barik, Aldundiko Garraio
Sailak ingurumenean eta abarretan
deskribidutako onura argiak
ekartzeaz gainera, neurri honeek
eskualderako estrategikoak diran
lekuetara hurreratuko gaitu: Gal-

dakaoko Ospitalera helduteko
kalkulautako denporea 30 minu-
tutik 10 minutura jaitsiz, edo AP-8
errepideagazko lotunera, Bilbo eta
Txorierragaz lotuten deuskuna.
Beste behin be, Arratiako EAJ-
PNVk pozik ikusten dau zelan,
lankidetzatik, alkarlanetik eta alkar
ulertzetik, konponbidea emoten
jakon herritarrak gure udal or-
dezkariei aspalditik heldu arazo
euskuen eskaereari. Are gehiago,
sistema barritzaile horrek ekarriko
leukezan abantailak kontuan har-
tuta; adibidez, Arratiako eskualdeko
kamioi kopurua murriztutea, istri-
pu-tasea jaitea eta errepideetako
istripu-tasea murriztutea. Espero
dogu sistema barri hori 2022ko
udagoienean martxan ipintea, Biz-
kaiko Foru Aldundiak jakin arazo
dauanez, Europako Batzordeak
proiektuari argi berdea emon eta
berau araututeko foru-arau barri
bat aldeaz aurretik onartu ondoren.

ARRATIAKO EAJ-PNV

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu.
Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan.
Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu
beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUK eskubidea dauka
horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkartea. Herriko plaza,
24. 48142 Artea edo beginu@topagunea.com helbidera.

GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

Bikotx



Gaztelaniaz "mellizo-a" eta "gemelo-a" berbak esaten badira
be, guk bientzat izen bera erabilten dogu: bikotx (bikotxa,
ahoskatuta). Batuan, biki da eta, tamalez, nagusituten jabilku
aspaldian gure artean. –kotx atzizki bera erabilten da beste
zenbakiakaz be: hirukotx, laukotx, boskotx, seikotx...

Gu biok ez gara bikotxak, baina, euren antzera, hamaika urte
emon doguz leihotxuginen. Hauxe da, irakurle, atal honetan
ikusiko dozun azken berbea. Agur!

ERETXIA

Eutsi ederrenari

Berriro itzuliko balitz iragan
denbora arrotza... kan-
tetan eban Xabier Letek.
Nork esango euskun urte eta
erdi eta gero, iragana hain arrotza
eta hain desiratua izango zanik?
Pandemiak egoera asko larritu
dau eta gizarteak orokorrean
sano txarto pasau dau. Kolekti-
bo batzuekasko enpatia gehiago
biztu bada be, hemen ez da inor
salbetan. Urte eta erdi denpora
asko da! Behintzat juergak exis-
tiduko balira, barrako eztabaida-
ren baten ziurrenik honezkero
denporearen makinea sortzeako
ekuazinoa asmatua izango zan.
Baina galdera beste bat da, eta
iraganera bueltauko bagina zer
egingo geunke?

Zelan ahaztu marti ha? Milita-
rrak kaleak hartu eta komunikabi-
deetan "Egunero astelehena da"
aldarrikatuz gudarako prestatu zi-
ran. Guk bestalde, betidanik izan
doguz irudimena eta aniztasuna
gure armarik onenatzat. Baina,
(milenialok behintzat) inoz bizi
izan dogun egoera belikoenean
murgildu bezain pronto, gure
armak entregau genduzan. Aste-
lehena biharamun akaso!

Zenbat bider esan eta entzun
dogu norbera bakarra dala eta
bereizitasun horrek zaindu eta
babestu behar doguzala? Beti-
danik daroaguz ardi baltzak go-
raipatzen eta maitatzen eta oin,
gizartearen presinoz gure usteak
ezabatu, gure eretxiak gorde eta
gure kemena suntsitu dogu, sarri-
tan besteok zer esango ebenaren
bildurrez. Herrigintza maite do-
gunok ondo dakigu emozinoen
kudeaketea be osasuna dala eta
aspaldi konturatu ginan herria
bizipozaren beharraz dagoala.
Baina, alaitasun hori kalera atera
beharrean, kale horretako hor-
metan "Jaia bai, borroka ere bai!"
margozteko erabilten genduzan
espraiak hartu eta gure artile
baltza zuritu dogu. Lehen aska-
tasunaren lurretatik ibili-biliz, oin
bala-bala aritzeko.

LEMOAKO GAZTE TALDE BAT

Eta bai, askatasuna erabiltea
jentea hiltzen dagoanean arriskut-
sua da. Izan be, COVID puta ho-
nek 50.000 persona hil ebazan
pasau dan urtean Espainian, ta-
bakoak oin urte bi baino 10.000
gitxiago. Eskerrak tabakoaren-
tzako Kantabrian badagoala
adikzinoa kentzean dauan sorgin
bat. Patentea askatuko baleu
egunero izango genduzan akela-
rreak Arratian. Bueno, danak oin
dala urte batzuk lgorren ospatu

zan modukoak balira, orduan bai
izango geunkela osasun krisi larri
bat.

Juerga barriz be aitamen. Gaz-
teok buruan daukagun bakarra
horixe da eta. Edo hori dinoe be-
hintzat. Gure alde esan beharra
dago bagilean murgildu garala eta
bagileak herriko jaien hasikerea
irudikatzen dauala. Parkatu, ez-
jaien hasikerea. Baina, zer da jaia
ez bada irri baten bueltan biltzea
eta parte hartuz kiribiltzea? Taber-
nan berba egin daikegu, baina
ezin abestu; terrazan tragu bat
edan geinke, baina 4 metrotara
dagoan banku publikoan edateak
isuna dakar; kalean ibili gaitekez,
baina ezin jantzatu. Jaiak etxeko
sofan streaming bidez ospatzen,
kaleak tope eta tabernak lepo da-
gozan bitartean. Zeozer ez gabiz
ondo egiten.

Alkar zaintzeko neurriak eta dis-
tantziak hartu behar dirala inork
ezin dau ukatu, baina zintzoak
izan gaitezana, Arratian ez gara
bata bestearengana hurreratu
jantza egiteko sekula be. Behar-
bada goizeko ordu txikitan, baina
jada ordurako urrunetik ez gen-
dualako ikusten.

COVIDak gauza asko kendu
deuskuz, baina jaiak, jaiak guk
galdu doguz. Akaso legea gogo-
rregia izan dalako, egoerara ego-
kitzea kostau jakulako edo betiko
moldeak moldatzeko gaitasun
falta izan dogulako. Ez dakit!

Argi geratu daitela, guzti hone-
gaz ez dodala desfasearen apo-
logiarik egin gura. Arestian aitatu
dodan legez, urte oso gogorra
izan da danontzat eta zaintza er-
digunean jarritz arduraz jokatzeta
danon erantzukizuna da. Baina
juergak itzuliko dira eta laster
denporearen makina bat izango
dogu. Beraz galdetu beharko do-
guna da, ea benetan herrigintze-
aren eta bizi-pozaren izenean gure
eskuetan egon dan guztia egin
dogun eta ea barriz be, gure ar-
marik onenak entregetako prest
gagozan.

Errespetuz, kaleak lan egitera,
ikastera edota ogia eroatera har-
tzean doguzan lez, hartu daiguzan
kaleak irri egiteko be. Azken finean,
bihar be astelehena da!

NETFLIX

EUSKARAZ

WWW.PANTAILAKTUSKARAZ.EUS

EUSKARAZKO
IKUS-ENTZUNEZKOEN
ALDEKO EKIMENA

Sinatu eskaerea helbide honetan:

<https://www.change.org/p/basque-governments-netflix-netflix-euskaraz-in-basque-en-euskera>

LUMATUTEN



**ARANTZA
ETXEBARRIA**

Amaierea eta hasikerea

Behin eta barriro irakurri eta entzun doguz edo gure azalean edo sano hur bizi izan doguz hau gaitzotasunau, txertoen jantzea, egoera honek sortu dituan holango eta bestelako ondorioak.

Benetan be luzea izan dan urte honek aukerea emon deusku bizitzan geldialdi bat egiteko eta barrura begira paretako. Hau ete da benetan gure bizimoduan gura doguna? Daukagunak beteten gaitu? Falta jakunak erre egiten gaitu?

Aurreko egun baten, aspaldiko partez, lagun batzuekalk alkartu nintzan mahai baten inguruan. Aurten ez dogu hurkoakaz aurrez aurre egoteko aukera handirik euki, eta pozgarriak izaten dira benetan be holango batzartxuak.

Lagun batek esan eustan etxe barri bat eta kotxetxu polit bat daukazala bikotekideagaz erdibana, eta ez daukala beste ezer behar. Argi eukan berak gura ebana. Beragaitik asko poztu nintzan.

Beste lagun batek esan eustan, daukana gorabehera, bere bizitzari trispea falta jakola aurrera egiteko, bizitzea aurrera joakola eta berak beste zeozer behar dauala. Argi eukan gitxienez zer gura ez eban. Beragaitik be asko poztu nintzan.

Dana dala, bata jaubetza materia-
lez ari zan, eta bestea jaubetza es-
piritualaz zelanbait esateko. Ez dakit
lehenengoak zelan eukiko dauan
arimea, eta besteari zelan eragin-
go deutsien edade honegaz euki
daukazan, ez daukazan edo euki gu-
rako leukezan jaubetza materialak.

Txarrena gero etorri zan, neure txandea heldu zanean. Trankil? Pozik? Gustura? Bakean? Introspektzinoan oindino, erantzun neban mingor.

Nik neuk be jakin beharko neuke seguru asko pandemia-efektuaren ostean zer ete dan nire bizitzarako gura dodana eta gura ez dodana, zein ete dan nire hurrengo pausuak gidatuko dauzan ardatza.

Txertoaren lehenengo dosia hartzeako txandea ate joka eukiteak beharlekua ipini deust mahai gainean. Esan leiteke etapa baten amaierarean eta beste baten hasikerearen aurrean nagoala. Zertan ipiniko dot fokua ate ostean zain daukadan etapa barri horretan?

Oinutsik ibili gura dot bedar gaineen, hodeien formak asmatu gura dodaz, istorio politik sortu gura dodaz, berotasuna ermon eta sentidu gura dot, nire egunak egun hutsak izan beharrean benetan lortutako egunak izatea gura dot.

Hala biz.

ZERTZEAN



KARLOS ARETXABAETA

1 863ko Nikolas Deunaren eguna heltzear zegoen, baina ezin nuen erabakia atzeratu. Etxeko beharizanak zirela eta, osaba Toribiok Ameriketant aspaldi sortutako etxaldera alde egin behar nuen. Hala ere, ez naiz sekain-lurrekoa, izan ere Portu Zaharreko kaleak eta bazterrak besterik ez ditut ezagutu. Anbekokalleko arrantza-giroa, Aretxondo auzoko iturri inguruan pilatutako umeen jira-birak, Asuarkako ikuzte-giko andreen txutxu-mutxuak, lemarien karraderak Eriberamuneko eskilaretatik behera, Etxetxuko aterpean herriko zaharrei entzundako itsas-istorio beldurgariak, Askana izeneko plazan ama eta beste sareginekin batera abestutako kantuak... Itsaskumea naiz oso-osoa; aurkituko ote dut asago dagoen Nevada hori?

Begirada kuxkuxeroetatik libre geundelarik, orduan-
te hasi zen Julian nire lepo gazia musukatzen, miaz-
katzen, portuko jardunak gazituta ziur asko. Ez nuen
istant hori apurtu nahi, gozoegia zirudien berri txarre-
kin garrazteko, eta bere erara utzi nion; gure Askanpe
hondartzako txoko hartan sarritan egin bezala.

Bere bizarraren zitzadatoek berehala gorritu zituzten nire belariak eta arima. Hala, jakitun balego bezala, hozkadatxo txikien bidez belarrietan aurkitu zuen nonbait gona azpian giltzarrazpoz gordetzen nuen kutxa magikoaren giltza. Orduantxe heldu zitzaidan heldu

erabateko berotasuna hankartera, izan ere, nire muxila bitsez beterik sentitu nuen, pozik, laster oso-osorik zabalduko denaren jakitun. Julianek, primeran ezagutzen nauenez gero, hortaz jabetu zen berehala, eta aukerarik galdu gabe bere esku arrailduak gona azpiko maskorran sartu zituen. Maite ditut kresalak gogortutako atzamar sendo horiek, jakin baitakite zein den euren zeregina. Haatik, segundu gutxi behar izan nituen bere eskuetako gogortasun hura biguntzeko, braustakoa nire alutik isuritako hazi jarioa tamainakoa izan zelako. Amasestuka utzi ninduen, beste behin, baina orduantxe nire txanda heldu zen, adio esateko txanda.

Asko pentsatu gabe bere gainean eseri nintzen, gona altxatu eta bere mahoizko galtza-zirak baldarki jaitsi nizkion, antsietatez, ez bainion azken istant horri ihes egiten utzi nahi. Horrela, bere itsas aingira gogotik heldu eta barruraino sartu nuen. Konturatu orduko trostan geunden biok, intzirika, talka betean, eta handik eta gutxira garrasi isil batek gure birkian kresalez bete eta gure bihotzak urtu zituen. Julian ez zen momentuan konturatu, baina, oharkabean, itsasgorak ekarritako salabardo uger batekin eskua zauritu zuen eta odol hari txiki bat zerion eskutik behera. Hura ikusterakoan hurrengo botan nion: biharkoan triste bahengo, lasai; orbanek pena jarria josiko ditek noizbait.

* Zertzean atalean argitaratzen doguzan testuak, literarioak edota sormenekoak diranez, heltzean diran moduan argitaratuko doguz eta ez doguz gure euskera ereduari ipiniko.

Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITUN argitaratu gura izan ezker, eskatu egiguzuz argitaratzeko baldintzak begitu@topagunea.com helbidean.

BEGI TXINDORRA

🍷 Etorkizuna bataila handi baten bidez argitu ezin bada, burruka aztarnak itxi behar dira gixienez..." René Char.

Urtero legez, maiatzeko atzen astean, Balkoitik balkoira bertso saioa izan genduan Dimako plazan Unai Iturriaga eta Jon Maiaren eskutik. Jada 21.ena. Gainera Dimako Bertso Eskolako kimu barrien lehen plazaratze sorpresa gozagarria be izan genduan bertara hurre-ratu ginanok.

Ezta erraza egungo mundu globalizatuan gure kultur ondarearen erakuslehoi dan bertsozaletasunari plazak eskaintzea ohikotasunez edo normaltasunez. Dirudianez gero eta gaxtagoa egiten da gure herrietan oraina eta geroa geure nortasun eta izakeratik landu eta eregitea.

Dudarik ez mundura eta kulturetara zabalik behar doguzala izan antolatzen doguzan jarduerak, ekimenak... baina geuretik, garanetik geure lurraldearen adierakazko konpleju barik agertu eta hornidu beharko geunkezu gure plaza bazterrak eta herritarrak.

Izan be, geure kultura ondarearen egungo ziurbakotasuna ez da egosten berben lapikoan eta esanetan, egitateetan eta hartzean doguzan neurri eta ebatzietan baino.

Aurrera bertsozale!



Zefe Ziarrusta

 Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa

LORAZAINTZA

Bildosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxoa: 94 673 96 88
gorosti@gorostisl.com

agoa
hagin klinika

Ortodontzia
Implanteak
Estetika

Marina Urigoitia Aldekoa
Odontologia

Bidebarri 1, behea
48140 Igome-Bizkaia
T. 94 631 50 39
Hilegora Zerbitzu: MII
R.P.S. 31/06

• Manikura
• Pedikura
• Depilazioa
• Solarium-a

Bihotza
Estetika Zentroa

Lehendakari Añire, 2. beheko - 2D - Inoan - 680.700.000

T
ERROITZ
O
K
A

Agerak
gaurik
osatu!

Lanetan! Agera 10
jonek

BEDIA

COVID-19aren neurriak egokitutako jaiak antolatu ditu Bediak

Erredakzinoa

Igazko moduan, jarduera batzuk modu pribaduan, norberaren etxean edo soloan egin eta argazkiak bialtzeko eskatuten dau Udalak ez diralako modu herrikoian egingo. Esate baterako, San Juan sua, soloan egin ezker argazkia bialtzeko eta solorik euki ez, edo egin ezean, kandela edo linterna biztuta leihora urteteko eskatzen dau. Ha-ta guzti be, plazan be egongo dira jarduera batzuk, modu presentzialean eta beste herritarraz gozatuteko, baina ikuskizun guztiak estatikoak izango dira segurtasun tarteagaz. Parte hartzeako alde aurretik liburutegian jasotako konbitea entregau beharko da eta Bediakoak bakarrik parte hartu ahal dabe.

Bagilak 23, eguaztena San Juan bezpera

20:00etan, jaien hasierako txupina. Etxetako leihoak eta balkoiak apaindu Udalak emondako zapiakaz. 21:00ak aldera, Deabru Beltzak taldearen ikuskizuna.

23:00etan, soloan San Juan sua egin eta *liburutegia@bedia.biz* helbidera bialdu. Ezpabere, urten leihora kandela edo linterna biztuta.

Bagilak 24, eguena San Juan eguna

11:00etan, meza nagusia. 17:00etatik 19:00etara, umeentzako tailerrak.

Bagilak 25, barikua

18:00etan, Bingo-kafea plazan 18 urtetik gorakoentzat. Kafea eta pastak Jai Batzordearen kontura. Bakotzak bere boligrafoa eroan beharko dau. 20:30ak aldera, Tio Teronen Se-meak taldearen ikuskizuna.

Bagilak 26, zapatua

14:30ean, Udalak, ohiturea ez galtzeako bazkaldutako paellea prestatu eta argazkia *liburutegia@bedia.biz* helbidera bialduteko eskatzen dau. 17:30ean, Bediako euskal jantza taldea eta gimnasia erritmikoa. 19:00etan, *Trakamatraka* musika tailerra eta ikuskizuna. 21:00etan, jaien amaierako txupina.

Udako ugerlekuak zabalik egongo dira urri lehenengoaren 12ra arte

Hilaren 12an zabalduko dira Lemoako udako ugerlekuak eta 21ean, Areatzakoak, eta herri batekoak zein bestekoak zabalik egongo dira urri lehenengoaren 12ra arte.

Erredakzinoa

Areatzan, goizeko 11:00etan zabalduko ditue ateak 15:15ak arte eta 15:45etik 20:00ak arte. Lemoan barriz, ordu berean zabalduko dira ugerlekuak, baina ordu erdi lehenago, 19:30ean, zarratuko ditue. Bertara joateko erreserba egin behar da alde aurretik online, udal webguneetan.

Indarrean dagozan COVID-19aren neurriak dirala eta, ugerlekuak aforo murriztua daukie. Areatzan, gehienez 300 abonamentu egongo dira. Ugerleku txikian, gehienez 40 ume batera eta handian, gehienez 50 persona batera. Aldagelak zarratuta, takillak ezingo dira erabili, sartzeako maskarea jantzita eroan beharko da jagokon lekura heldu arte, tenperatura neurtuko da, berdegunean personaren arteko 1,5 metroko distantzia gorde behar da eta galazota dago olgetea.

Abonamentuak egin daiekiz hilaren 18an eta 19an Areatzan errolatuak eta gainontzeak

20 eta 21ean, piszina bertan 11:00etatik 14:00etara eta 15:00etatik 18:00etara. Eguneko sarrerak egongo dira eta txanda bi: goizekoa eta arrastikoa. Aurretik eskatu behar da hurrengo egunean zein txandatan joan gura dan, sistema informatikoaren bitartez.

Lemoa

Lemoako instalazioetan, gehienez 224 persona egongo dira; ugerleku txikian, 15 ume gehie-

nez, bakotxa heldu baten ardura-pean, eta handian 100 persona.

Egun osorako txandea hartu behar da, aurretik, bezperan hasita udal webgunean. Baieztapena emailaz jasoko dau eskatzaileak.

Aldagelak eta dutxak zarratuta egongo dira eta ezarritako segurtasun eta garbitasun neurriak betetea derrigorrezkoa da. Lemoako Udalak osasun neurriak beteten ez dirala ikusi ezker, ugerlekuak zarratu ahal izango ditu eta ez da dirua itzuliko.



LEMOA

Munduko beste lekuetatik etorritako lemoaztarrak euren esperientziak konpartiduko dabez



Erredakzinoa

Garagarriaren 3an, izango da jatorri desbardinatutako lemoaztarrak batu eta esperientziak konpartidutako egingo dan lehenengo saioa, 10:00etatik 14:00etara, Kotxepin Kultur Etxean. Guztira bost saio izango dira eta Munduko me-

dikuak-Médicos del Mundo (Bilbo) Gobernu Kanpoko Erakundeak dinamizauko ditu saioak. Izena hilaren 24ra arte emon daiteke udal webgunean.

Landuko diran gaiak, udalerriaren baliabideak, aniztasuna eta kulturartekotasuna, arazoak, zailtasunak, beharrak edo bizikidetz

izango dira beste batzuen artean. Hau da, herritartzeko prozesuan izandako esperientziak eta zailtasunak konpartiduko dabez, prozesu hori errazteko.

Aurkezpena

Proiektua bagilaren 9an aurkeztu eben, Saioa Elejabarrieta Lemoako alkateak, Pablo Rodríguez Gizarte Ekintza teknikariak, Yolanda Oqueli Guatemalako giza eskubideen defendatzaileak, Paula Ehimof errumaniarra Kresala tabernako jaubeak, Sabbah El-Ouddy Marokoko jatorria daukan Lemoa Harrera taldeak lagundu dauan familia bateko alabeak, Muath Hamed, Palestinako kazetari errefujiaduak eta Akhond Ishaq Pakistango sukaldariak.

Saio horreetatik aparte eta harremanak egiteko beste modu batzuk ere egiteko, espazio informalai be emongo jakiera garrantzia jakin arazo dabe Udaletik.





Bediako Udalak eta jai batzordeak

Gora San Juan jaiak!

JAI ZORIONTSUAK OPA DEUTSUEZ

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Ostalaritza eta kultur jarduerak gauerdira arte baimendu zituan Jaurilaritzeak

Erredakzinoa

Bagilaren 2an sartu ziran indarrean neurri barriak. Bost neurri arindu eta beste bederatzi neurri ez arintzea ebatzi eban Labik maiatzaren 31n. Kultur jardueren, merkataritzaren eta ostalaritzaren ordutegia 24:00ak arte zabaltzeaz gainera, kanpoan kirola egitea gehieneko persona kopuru barik baimendu zan; garraio publikoaren urtekerak gauerdira arte luzatu ziran eta

aisialdiko taldeak, talde egonkorak izan ezker, hamar lagunera handitzea onartu zan, baita aire zabaleko erakusketetan edo bisita publikoetan be, gehieneko kopurua hamar lagun izatea. Hurrengo beste bederatzi neurriak oindino ez arintzea be ebatzi eban: establezimentuak zarratuteko ordutegiak gaueko 01:00etara luzatutea; merkataritzan, azoketan, kanpoko kultur ekitaldietan eta kultu aretoetan egon daiteken jente kopurua handitzea; ekitaldi

publikoetan 600 persona egoteko baimena emotea barruan, eta 800 kanpoan; ostalaritzan, mahai bakotxeko sei persona egotea; txokoak eta alkarte gastronomikoak zabaldutea; barruko eremuetan kirol jarduerak ahalbidetzea; kirol ekitaldietan ikusleak baimentzea; bisita gidatu eta naturako turismo jardueretan taldeak handitzea; eta %60oraino handitzea ugerlekuen, lorategien, hoteletako terrazen eta kanpinen kanpokaldeko edukierak.

LEMOA

Arraibi auzoa barriztatuko dabe

Erredakzinoa

Proiektuak 1.528.004,25 euroko aurrekontua dauka eta aho batez onartu zan Osoko Bilkuran. Obra 12 hilabetetan egitea aurreikusi da eta 2018an, patioan egindako lanai jarraipena emongo deuse. Hiru fase ditu proiektuak 2018an emon jakon hasikerea Arraibiko patioaren konponke-teagaz eta oin plaza eta kalea barriztatzeri jagokon proiektua onartu da. Aurrekontuaren miloe bat inguru kalea erabarritzeko erabiliko da eta 485.000 euro plazarako. Esleipenak neurgailu bi izango ditu: alde batetik prezioak %70ean eta bestetik, hobekuntzak proposatzeko gaitasunak %30ean. Bost hobekuntza eskatzen dira, eta horreek 63.000 euroko aurrekontua daukie. Udaletxe aurreko lurpeko eukiontzia kentzea, udaletxeko galdara aldatu ahal izateko beharrezkoa dan

hoditeria sartzea, umeentzako ur jokoak hobetutea, ibilgailuak kargetako puntu elektriko bat ipintea eta umeen jolas parkea barriztatzea dira eskatzen diran hobekuntzak. Saioa Elejabarrieta Lemoako alkatearen arabera, "auzoaren itxurea goitik behera aldatuko



Arraibi auzoa.

dauan obrea izango da". Oinezkoentzat pentsautako auzoa izatea gura dabela dino eta autoentzako "norabide bakarreko kalea egingo da eta horrek espaloia asko handitzeko aukerea emongo dau". Lur azpitik doan hoditeria guztia aldatu eta barriztatuko da. Plazea be erabarrituko da eta irisgarritasun arazoak konponduko dira.

IGORRE

Jaiak bertan behera itxi ditue

Erredakzinoa

Igorreko Jai Batzordeak eta auzotako jaien arduradunak jakin arazo dabe bertan behera itxi dabezala Igorreko jaiak, Gezalako jaiak, San Juan jaiak, San Kristobal jaiak, Andra Mariak, Urkuzuko jaiak, Garamendikoak eta Garbekoak. "Urtebete pasatxo pasau da COVID-19 birusa gurean hedatzen hasi zanetik, eta zoritxarrez, hoberanzko joerea badago be, birusak bizirik jarraituten dau, indartsu. Horregaitik, jairik egongo

ez dan garai honetan, herritar guztiai arduratsu eta zentzuz jokatzeo eskaerea luzatzen deusuegu Igorreko Jai Batzordetik eta auzokoetatik; izan be, oindino ez dago osasun garantia nahikorik jai giroan behar eta merezi dan bezala murgiltzeko" dinoe ohar batean batzordekoak. "Ez doguz ahaztu gura pandemia garaian sufridu daben igorreetar, langile publiko, merkataria eta ostalariak; animo eta gure besarkadarik beroena zuontzat guztiontzat" gehitu dabe. Amaitzeko "bihotzez espero

dogu egoera hau hainbat arinen gainditzea eta normaltasunera bueltatzea 2022an herrian eta auzoetan doguzan jaiak behar bezala ospatzeko" dinoe eta igaz bannandu ziran zapiak balkoietan eta leihoetan ipinteko deia egin eben. Igorreko Udalaren babesa Igorreko Udalak hilaren 9an ateratako oharrean ebatzia "babestu eta berrestu" egiten dauala adierazo eban. "Herritarrai arduraz jokatzeo deia luzatu gura deutsegu eta masifikazioak eta kutsatzeko arriskua izan daikien jokabideak saihestea eskatu" gehitu eban.

ARRATIA

Urkiolako santutegira oinez edo autobusez joan ahal izango da

Erredakzinoa

Bagilaren 19an, zapatuan, egingo da aurten Urkiolako santutegian errogatibea. Autobusez edo oinez joan ahal izango da bertara. Oinezkoak, 06:00etan urtengo dira Dima eta Igorretik eta 07:30ean, Zeanuritik. Autobusez joateko parrokiari hartu behar da txartela. COVID-19aren neurriak diralata, santutegi barruan, gehieneko 150 persona egon daitezke. Aurtengo leloa, "Pandemia ere... danok neba-arreba" da. San Antonio egunaren osteko zapatuan, errogatiba egunean, Arratiako parrokia guztiak aldi berean joaten dira Urkiolara, bailarako abadeakaz

batera. Arantzazuko parrokia arduratu da aurten antolatuteaz.



DIMA

Julen Baz Madrid Fusion gastronomia lehiaketan hirugarren

Erredakzinoa

Dimako Lamindaon dagoan Garena jatetxeko sukaldariburuak hirugarren egin dau Espainia mailako Madrid Fusion gastronomia lehiaketan urteko sukaldari errebelazino atalean. Madrid Fusionez jatetxea bera eta han jaten dana baloretan dau eta Garena aurtengo estatu mailako jatetxe onenen podiumean egon da atal horretan. Kritiko gastronomikoak jatetxeetatik pasetan dira eta bozketea egiten dabe irabazlea ebazteko. Lehenengo aukeraketea, Juan Carlos Capel Madrid Fusionezko zuzendariak berak egiten dau. "Honek egiten dauana da aukeratu zenbait ja-

tetxe gero bertatik pasau daitezan kritiko gastronomikoak" azaldu deutoso BEGITU Julen Bazek. Kritiko gastronomikoak pasetan dira jatetxeetatik eta jatetxea bera eta bertan jandakoa baloretan dauan bozketea egiten dabe.

Hirugarren saria

Epaimahaiak Julen Baz eta Garena jatetxea saritu eban sukaldaritza "sentidua, erregistroz betea eta inguruko despenseagaz estu lotuta eta klabe garaikidean" egiteagaitik. Albaceteko Cañitas Maite jatetxeko Javier Sanz eta Juan Sahuquillok eroan eben lehenengo saria eta Cadizeko Ciclo jatetxeko Luis Callealtak bigarrena.



BEER & EDARIAK
Guillermo 659 48 28 39
Fernando 699 29 67 17
Eduardo 647 72 96 24
Arkaitz 677 46 40 91
Golder 666 58 20 06
Pozurto poligonoa, 10 LEMOA • beeredariak@gmail.com

UBIDE

Hainbat ekintza Ubideko San Juan jaietan



Erredakzinoa

Tradizinoari eutsiz aurten be arbolearen bila joango dira basora ubidarrak, gero herriko plazan altxatzeko.

Hainbat ekintza antolatu ditue Ubideko jaietarako. Idoia Asurmendiren kontzertua, elektrotxarangea eta kale antzerkia agertzen dira jai egitarauan besteak beste.

Igazko lez aurten be "ekintza batzuk egitea pentsau dogu Ubiden, neurri guztiak hartuta eta arrisku bakoak, bai herritarraitik eta bai kultureagaitik" adierazo dabe Jai Batzordekoak.

- Bagilak 23, eguaztena**
17:00etan, arbolearen bila.
19:00etan, arbolea herriko plazan ipini.
23:00etan, sua.
- Bagilak 24, eguena**
13:00etan, kopautxoak.
- Bagilak 25, barikua**
18:30ean, Sakatu elektrotxarangea. Estatikoa.
20:00etan, herriko ume eta gazteen jantza emonaldia.
- Bagilak 26, zapatua**
11:00etan, oreka lantzea helburu



daukan tailerra. Inguru Abenturaren eskutik.

16:30ean, Ubideko familien historia: Ikerketa genealogikoaren aurkezpena.

18:00etan, Cía. Barsantiren *Kale gorrian* kale antzerkia.

Bagilak 27, domekea
12:00etan, Trakamatraka. Material birziklauagaz egindako musika tresnakaz ikuskizuna eta tailerra umeentzat.

19:00etan, Idoia Asurmendiren *Ilun eta abar* diskoa aurkezteko kontzertua.

20:00etan, herri parrilladea. Osteen, atzen traka.

Ubide

Jai batzordeak eta Ubideko Udalak jai zoriontsuak opa deutsuez

Osasuna eta segurtasuna danon artean bermatu daiguzan.

Gora San Juanak!

DIMA

Ekintzak Diman sanpedroetan

Erredakzinoa

Aurtengo San Pedro jaietarako ekintza batzuk antolatu ditu Dimako Jai Batzordeak. BEGITU ezin izan dau jakin ekintzok ze egun eta ordutan izango diran, ekintzon ordu eta egunak oindino guztiz zehaztu barik dagoz eta. San Pedro egunean, 85 urtetik gorakoai egingo jakien omenaldi eta mezeagaz hasiko dira jaiak, eta garagarilaren 1, 2, 3 eta 4an emongo jakie segidea. Aukeran Dantza Konpainiaren *Hurrengo geltokia*, Dima ikuskizuna, bertan Dimako umeak be hartuko dabe parte, LauSo, Alos

Quartet eta Liher musika taldeak, La Basu, Trapu Zaharrak antzerki konpainiaren *Turistreatzen* kale antzerkia, Panpotx-en eskutik

umeentzako tailerrak eta San Ferminetako entzierroa irudikatzen dauan *El Torico* umeentzako ikuskizuna dira ikusgai egongo diranak.



ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Auzoetako jaiak

Erredakzinoa

Auzune askotan sanjuan sua bizteko ohiturea dago. Aurten, COVID-19aren neurri murriztaileak lehengo moduko jairik ahalbideratu ez arren, arauak beteta egin daitekena egitea ebatzi dabe auzo batzuetan, sua edo musikeagaz jaiak gogoan izateko behintzat.

Normalean, Arantzazuko plazan, Areatzako Zubizarran, Dimako frontoi ondoan, Igorreko

San Juan auzoan, Lemoako Tallerretan eta Zeanuriko Altxuagan bizten ziran suak. Aurten osteraleku batzutan ez da surik biztuko, baina salbuespenak badagoz. Izan be, Arteak eutsi egin deusto tradizioari eta 21:30ean sua egingo dabe Santamañen. Kokomarroak alkarteak be udako solstizioa ospatuko dau Elexabeitin, Gaztelun eta herriko plazan.

Lemoan, suaren ordeaz, musikeak hartuko dau protagonismoa

San Juan bezperan, eta Bitartean Folk Taldeak eta Ttarla jantza taldeak ikuskizuna eskainiko dabe Elizondoko Kulturguneko plazan.

Sanpedroak, Arantzazuko eta Dimako herriko jaiak izateaz gainera, Zeanuriko Undurragan eta Lemoako Elorriagan be ospatuten ziran besteak beste. Undurragan aurten egitarau xumea antolatu dabe auzokoentzat. Goizeko 11:00etan mezea egongo da, arrastian Txatonean umeentzako eta nagusientzako Bolo Txapelketea eta jaien amaieraa txokolateagaz egingo dabe iluntzeko 20:00etan.

Udala osatzen dogun pertsona guztien izenean, dimoztarroi San Pedro zoriontsuak opa deutsueguz.

Dimako Udala

IRUNE COSTUMERO

Epaiairen zain dagoz Bizkaiko Foru Aldundiko lau langile, hiru eguneko epaiketa amaituta

Bagilaren 7tik 9ra arte izan zan epaiketea. Epailleak ebatzi beharko dabe ea akusaduak, prebrikazinoa, tratu txarrak eta lesino psikologikoak eragin deusezan Irupe Costumerori eta bere alabeari. Sergio Murillo Bizkaiko Diputazinoko Gizarte Ekintza diputadua; Maria Antonia Giner, Haur Zerbitzuko Harrera eta Balorazino burua; Consuelo Alonso Haur Zerbitzuko burua eta Maika Urutxurtu gizarte langilea epaitu dabez Irupe Costumerori alabearen zaintza kentzeagaitik GASa (Guraso Alienazino Sindromea) argudio gisa erabilita. Akusazinoak, 5 urte, zortzi hilabete eta egun bateko kartzela zigorra eta 15 urte arterainoko kargu publikoetarako inhabilitazinoa eskatzen dauz. Fiskalak eta defenseak barriz, lau inputaduentzako absoluzinoa eta Costumerori kostuak ordaindu arazotea.



Irupe Costumero prensari erantzuten Bilboko epaitegiaren aurrean.

Erredakzinoa

2017ko udan kendu eutsien Irupe Costumerori alabearen zaintza. Aldez aurretik, zaintza partekatua ezarri eban epaile batek, baina Foru Agindu batez, 2017ko abuztuaren 4an, ama eta alabea banandu ebezan, behin-behineko zaintza aitari emoteko. Foru Aginduak ez eukan abal judizialik.

Aldundiko Haurren arreta zerbitzuetako langileak, Foru Agindu hori emoteko, oinarritzen ziran Bizgarriren txosten baten non esaten zan, umea arriskuan egoala amaren parteko "guraso alienazinoagaitik". Hau da, umeak ez ebanez aitagaz joan gura, aldundiko teknikariak amari umea

manipuletea egotzi eutsien, Guraso Alienazino Sindromea (GAS) aplikauz. GASa inoz ez da egon OMEn gaixotasunen ezelangotratadutan, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak baztertu egiten dau, maiatzean onartutako Haurren Babeserako Espainiako Legeak galarazo egiten dau apliketea eta feminismoak indarkeria matxista instituzional tresnatzat dauka, indarkeria salatzetakoan amai sinisgarritasuna kendu eta euren kontra jartzean dalako. Ha-ta guzti be, Rosario Ramirez fiskalak defendidu eban guraso alienazinoa, akaso ez gaixotasun moduan baina "desordena moduan, egon badagoala". GAS faltsua epaiketa osoan zehar

Familien topalekuan**egindako audio****grabazino bat aurkeztu****eban akusazinoak,****funtzionarien eta****ertzainen bersinoa****deuseztatzeko, honeek****esan ebelako banaketea****normala izan zala eta ez****traumatikoa**

presente egon da. Aldundikoak saiatu dira euren deklarazioetan horretatik urruntzen, "manipulazinoa" edo "guraso alienazinoa" berbak erabiliz.

Umearen zaintza kendu eutsienez topalekuan egindako audio grabazino bat aurkeztu eban akusazinoak, funtzionarien eta ertzainen bersinoa deuseztatzeko, honeek esan ebelako banaketea normala izan zala eta ez traumatikoa. Bertan, umea oihuka eta negarrez entzuten da. Irupe Costumeroren abogaduaren arabera, grabazinoa Haurren arreta zerbitzuko batek egin eta Costumerori emon eutsan. Fiskaltzak eta Defenseak zalantzan ipini dabe froga hau eta epailleak froga ez onartze-

ko eskubidea dauka.

Egun haretatik, oin dala 4 urte, bananduta dagoz ama-alabak. Aitak dauka behin-behineko zaintza eta 2021eko urtailera arte, epaitegi batek neurriak aldatu arte, umeak ezin izan dau amarenean geratu lo egiten. Bisita egutegia be urria dauka Costumerok.

Irupe Costumeroren kasua dala-eta, Nazino Batuak esplikazinoak eskatu deusaz Espainiako Gobernuari eta Espainiako Bardintasun Ministerioak babesa adierazo deuto Igorrekoari epaiketa aurretik, epaiketan zehar eta ostean. BFAk barriz, Murillo diputadu izentau eban inputauta egoanean eta aldundikoai emon deuse babesa.

Lehenengo eguna

Arratiako Mugimendu Feministak deituta, epaiketea hasi baino lehen, 60 bat lagun batu ziran kanpoan Irune Costumerori babesa emoteko; tartean, Igorreko alkatea. 08:30ean zabaldu eben lehenengo pankartea eta 11:00ak arte egon ziran, "Ni be Irune Costumero naz", "Iruneren alabea etxera", "Umeen eskubideak, giza eskubideak" eta "Arratia Irunezag batera" aldarrikapenak egiten. Durangoko Andereak alkatetako hainbat kide be egon ziran epaitegi aurrean Costumerori babesa adierazoten.

Irune Costumero 09:20ak aldera heldu zan. "Justizia egitea eta alabea etxera itzultzea espero dot" adierazo eban. Epaikeak daukan garrantziagaitik, hedabide asko egozan han, Costumeroren adierazpenak jasoteko.

Ertzaintzaren despliege handia egon arren, hiru furgoneta, ez zan istilurik egon.

Sare sozialetan, Irene Montero Espainiako Bardintasun Ministroaren babesa be jaso eban. "Gure herrialdeak erreparazinoa zor deutso Irune Costumerori ez aitortzeagaitik burrukan egin dauala bere alabea indarkeria matxistegaitik babesteko" idatzi eban Twitter-en.

Akusaduen eserlekuan ezarri ziranak be jaso eben 50 bat lagun babesa.

Akusaduen deklarazioak

Bagilaren 7an, 09:30ean hasi zan, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintzako diputaduen eta Bizkaiko Foru Aldundiko Haurren arreta zerbitzuko hiru funtzionarioen kontra Bizkaiko Lurralde Auzitegiaren Bigarren Atalean irekitako auzia. Hiru epailek, Maria Jose Martinez buru dala, ebatzi beharko dabe akusaduak delituak egin dituen ala ez.

Iñaki Aranak, akusazioaren abogaduak, epaileen egokitasuna zalantzan ipini eban hasieran eta beste epaile batzuk epaitzea eskatu eban, epaile honek birritan zarratu dabezalako umearen kontrako tratu txarren kausak eta beraz, ez diralako zerotik hasten. Ez zan onartu epaileak aldatutea eta lau inputaduen deklarazioagaz hasi zan epaiketea. Deklarazioa egiten lehenengoa, Maria Antonia Giner, Haurren arreta zerbitzuko Harrera eta Balorazio arduraduna izan zan. Honek zerbitzuaren funtzionamentua azaldu eta Foru Agindu baten bidez hartu ebela amari umearen zaintza kentzeako ebatziaren barri emon eban. Amak umeari kalte eragiten eutsala, "harreman estuegia" eta "kontrola" lepora-

tuz Costumerori, eta umea aitari emotea ebatzi eben, aitzak umea zaintzeako gaitasuna eukalako eta beste neurri traumatiakoak ez hartzeako.

Foru Agindua sinatu eban Consuelo Alonsok zerbitzuko arduradunak. Agindua behin-behinekoa zan eta ebatzi honen kontra egiteak atzeratu egin dauala "normalizadara bueltetea", hau da, zaintza partekatura esan eban.

Maika Urutxurtu gizarte langileak, 2017ko abuztuaren 4an gertatukoaren kontakizuna egin eban. Egun haretan, topagune baten umea, ama eta amamagaz egoala, Foru Agindua zala medio, umeak gura ez arren, aitarenera eroan eben. Umeak negarrez esaten eban ez ebala aitagaz joan gura, eta gizarte langileak umea hartu eta eroan egin eban ertzainen laguntzeagaz, aitarengana eroateko. Handik urtendakoan umea lasai joan zala eta hainbeste denpora beragaz egon barik egondako aitari umea emotea "hunkigarria" izan zala esan eban Urutxurtuk. Momentu haretako irudi grabaziorik ez dago.

Irune Costumerok barriz, umeak ez ebala aitagaz egon gura bildurra eutsalako azaldu eban. "Topaguneetara joaten ginan eta umeak ez eban gura bere aitagaz joan. Gizarte langileak esaten eusten umea ondo joan behar zala eta ni saiatzen nintzan horretan" esan eban. Egun haretan, indarrez eroan ebela esan eban Costumerok, hamar persona inguru egozala umea eroateko; tartean ertzainak borra eta guzti.

Trinidak Estevezek, umearen amamak be berretsi eban umeak ez ebala aitagaz joan gura izaten eta egun haretan bizi izandakoa be kontau eban. Momentu baten, larri ipini zan, ansiedadeak jota, eta Costumerok artatzea eskatu eta aretotik urteten lagundu eutsan.

Irene Montero Espainiako Bardintasun Ministroak, "Gure herrialdeak erreparazinoa zor deutso Irune Costumerori ez aitortzeagaitik burrukan egin dauala bere alabea indarkeria matxistegaitik babesteko" idatzi eban Twitter-en



EDUKIONTZI MARROIRAKO INSKRIPZIOAK ETA MATERIALEN BANAKETA



	LEKUA	EGUNA	ORDUA
LEMOA	Juan B. Eguzkiza Meabe kalea (Estankoaren ondoan)	EKAINAK 21 Astelehena	11.30-14.30
BEDIA	Plaza	EKAINAK 21 Astelehena	16.00-19.00
AREATZA	Plaza	EKAINAK 22 Martitzena	16.00-19.00
DIMA	Plaza	EKAINAK 23 Eguaztena	16.00-19.00
ARTEA	Plaza	EKAINAK 24 Eguena	16.00-19.00
ZEANURI	Plaza	EKAINAK 24 Eguena	16.00-19.00
IGORRE	Lehendakari Agirre kalea (Troka tabernaren ondoan)	EKAINAK 26 Zapatua	11.30-14.30
UBIDE	Plaza	EKAINAK 28 Astelehena	16:00-17:30
ARANTZAZU	Plaza	EKAINAK 28 Astelehena	18:00-20:00



ARRATIAKO VDALEN MANKOMUNITATEA



Bigarren eguna

Pankarta eta leloakaz alkartasuna adierazo eutsien Irune Costumerori hainbat lagunek bigarren egunean be. Lehenago hasi zan epaiketea egun horretan, 09:00etan. Hori dala-eta, 08:45 aldera heldu zan Igorrekoa. Sar-tu baino lehen, bezperan legez, eskertu eban bertan bildutakoen alkartasuna eta adierazpen ba-tzuk egin ebazan prensarako.

Justizia Jauregi aurrean bildu-takoak, aldarriez gainera, komu-nikadu bat be irakurri eban eta BFAk umea eroan ebaneko graba-zinoak "galdu izanak" salatu eban.

Unai Rementeria Bizkaiko Ahal-dun Nagusiak Murilloren errubakotasunean konfiantzea eukala adierazo eban eta aldun-dikoak epaituten dituela "euren lana egiteagaitik".

Aita eta pediatrearen lekuko-tasunak

Bigarren egunean, Haurren arreta zerbitzuko funtzionarioak, ertzai-nak, Bizgarriko langileak, aita eta umearen pediatreak, beste le-kuko askoren artean, emon eban euren testigantza.

Jose Angel Luis umearen aita-k beti kolaborau egin dauala esan eban Haurren arreta zerbitzukoak. Luisek esan eban berak eskatuta hasi zirala Familien Topaguneak erabilten, bere andreak bere kon-tra jarritako "salaketa faltsuakaitik".

Defensako lekukoak euren jardue-n GAsa ez dabela erabilten esan eban eta Costumeroren kasuan ebatzia hartu zala ama eta alabea lar lotuta egozalako eta lotura horrek kalte egiten eutsalako umeari.

Kontrako eretxia agertu eban Arantza Ceballos Osakidetzako pediatreak. Ondo ezetuten dauz Irune eta bere alabea, umea jaio zanetik umearen pediatrea izan dalako. Ama-alaben arteko hartu-emona "zoragarria" dala esan eban. Baina umeak oindino ez eukazanean urte bi be, eta dibor-tzio prozesu erdian, aita umeagaz desagertu zan. Ostein, umeari hasi egin jakola nortasuna alda-tuten esan eban pediatreak. Den-pora horretan amak ez eban jakin umea "bizirik egoan ala ez".

2017an, Foru Aldundiak umea-ren zaintza amari kendu eutsa-nean, ez ziran pediatreagaz kon-taktuan ipini eta beraz, ez eban kontuan hartu, umea jaio zanetik artatzen eban medikuaren eretxia.

Umeen zaintza eta babeserako Balora Jaurilaritzako protokoloan, oinarritzen da Bizkaiko Foru Al-dundia eta tresna hori aspaldi dago kolokan, GAsa bultzatzen daualakoan. Mamen Fuentesek, Barakaldoko Gizarte Zerbitzuetako langileak, Baloran ez dala GAsa erabilten esan eban. Fiskalak, galdetzean, barriz, sindrome hori "egon, badagoala", esan eutsan.



Unai Rementeria
Bizkaiko Ahal-dun
Nagusiak Murilloren
errubakotasunean
konfiantzea eukala
adierazo eban eta
aldundikoak epaituten
dituela "euren lana
egiteagaitik"

Gugaz
harremanetan
ipinteko

94 631 73 14
eta
649 979 112

begitu

Publizidadea:
649 979 115

✉ begitu@topagunea.com

🌐 www.begitu.org

Hirugarren eguna

Fiskaltzak eta Defenseak absoluzinoa eskatuz amaitu zan epaiketea. Akusazinoak barriz, prebarikazinoa, tratu txarrak eta lesino psikologikoakaitik kartzela zigorra eta inhabilitazinoa eskatu eban. Epaiaren zain dagoz oin, hiru eguneko epaiketea amaituta.

Hirugarren eta atzen egunean, jarraitu eben alde bietako perituak azalpenak emoten eta atzenean, akusazinoak, fiskaltzak eta defenseak konklusinoak azaldu ebezan. Epailleak, Foru Agindua sinatu ebenean prebarikazinoa egon zan ebatzi behar dabe; ea tratu txarrik egon zan ama eta alabea banandu ebezan egunean, eta, urteotan bizi izandakoak lesino psikologikoak eragin deutseen Costumerori eta alabeari.

Prebarikazinoari jagokonean, Rosario Ramirez fiskalak esan eban Foru Aldundiak ezin ebalu besterik egin eta legea aplikau ebalu, Costumeroren abogaduentzat barriz, akusaduak ez eben bete legea eta horren jakitun ziran, ez ebelako kontuan

izan sententzia judizial batek ezarritako zaintza partekatua eta indarrean egoana. Gainera, Maika Urutxurturen txosten "falsu eta lerratua"k, Beatriz Lafuenteren txostena "kopiau eta itsatsi" egin ebalu esan eban, Guraso Alienazino Sindromearen "parental" berbea, "marental"era aldatuz. Holan txostenak sortuz, bata bestearen gainean, "kasu" bat eraikitzen da Aranaren ustez.

Behin-behineko zaintza aitari emotera eroan eban txostenaren egileari, Bizgarriko Beatriz Lafuente psikoterapeuteari galdetu eutsan Costumeroren abogaduak ea Haurren arretra zerbitzuak jarraibideak marketan deutsezan ala erispide profesionala librea dan eurentzako lan egin behar izaten dauanean. Lafuenteren erantzuna izan zan, librea dala baina "helburua orientau" egiten dabela.

Alabearen zaintza kendu eta egun batzuetara Costumero kontaktuan ipini zan Sonia Vaccaro, Madrilen bizi dan, indarkeria matxistan aditua dan psikologoagaz. Bere

Sonia Vaccaro sano kritikoa izan zan Haur Zerbitzuak erabilitako txostenakaz: "Ume batek guraso bategaz egon gura ez daualako, bestea kentzea, sendagarria baino krudelkeriaren mugetan dagoala esango neuke"

konsultara joan zanean, "behea jotako" andrea zala Costumero esan eban Vaccarok "ez eban ulertuten gertatutakoa eta niri galdetzen eustan ea zeozer egin eban txarto eta esaten eutsenen moduan umeari kalte egin ete eutsan". Sonia Vaccaro sano kritikoa izan zan Haurren arretra zerbitzuetako txostenakaz. "Ume batek guraso bategaz egon gura ez daualako, bestea kentzea, sendagarria baino krudelkeriaren mugetan dagoala esango neuke".

Ados egon ziran Dolores Serrat eta Juan Carlos Gimenez mediku forense eta psikiatrak egindako kaltea izugarria dala eretxita. Serratek umeari bere abizena galdetzerakoan, amarena esaten dauala eta handitan aldatuko dauala esaten dauala esanez hasi eban bere deklarazinoa. Bere eretxian, hainbeste denpora aitagaz

bizi izanda gero be, umeak ez dauka aitarenganako atxikimeturik; "disoziazino bat egin dau, inposautako zerbaist legez bizi dau". Amarengandik bananduteak be kalte psikikoa eragin deutso umeari "lotura afektibo garrantzitsua eukan amagaz. Horrek in-seguridadea sortzean deutso eta ume argia danez, adaptetan jakin izan dau, baina sufrimentu psikiko handiagaz". Beatriz Lafuenteren txostena dala-eta, Serratek ez dau ikusten korrelazinoarik Lafuente deskribiduten dauana eta egiten dituan ondorioen artean.

Gimenezek amagazko lotura afektiboaren garrantziaz egin eban berba eta hori kontuan hartuta, buru gaixotasun larrietenetan be, eskizofrenia kasuetan, hain zuzen be umeak amagaz ixten dirala esan eban.



ANDRAMARI ZORNOTZAKO IKASTOLA

"Txikiak handi egiteko, hezkuntza osoa"



HAZIA
(0-6 urte)



KIMUA
(6-9 urte)



EKIA
(9-16 urte)



IBAIZABAL
(16-18 urte)



- Pedagogia eraldatzailea.
- Ikastolako sukaldean prestatutako produktu ekologikoak, bertokoak eta sasoikok.
- Garraioa: Usansolo, Bedia, Lemoa, Igorre eta Zornotza.
- Zaintza.
- Eskolaz kanpoko ekintzak.

MATRIKULA URTE OSOAN ZABALIK

Bisita gidatuak eta informazio gehiago: 94 673 29 50 · zornotza@ikastola.eus · www.zornotzaikastola.eus



JANIRE ETXABE

"Naturguneetan hasten da koreografia sorkuntzea"

Janire Etxabek jantza bertikala egiten dau. Dimegaz alkartea sortu eban 2017an Diman bizi zanean beste lagun bigaz batera, jantza bertikaleko ikus-entzunezkoak zabalduteko. Hortik sortu zan, *Harria Herria* 2019an BBK Mendifilm Bilbaon estrenau zana. Harrezkeroztik buru-belarri dabil lanean eta proiektu barriakaz: Harrobi Dantza Bertikala (*harrobi.eus*) konpainia sortu, zuzeneko emonaldiak, *Haize Lerroa* filma grabau, *Dendu* proiektu barria martxan ipini eta jantza bertikaleko eskolak emon sormen handiko beste proiektu askoren artean. Garagarrilaren 2an, Bilboko Kalealdian zintzilikatuko dira Harrobi Dantza Bertikala konpainiakoak, UPVko eraikinaren kanpoko paretan, jantzan egiteko.



Erredakzinoa

Jantza bertikaleko zure lehenengo proiektua *Harria Herria* izan zan, ezta?

Bai. Gaixorik nengoala idatzi neban. Bere sasoiari, Jabi Atutxak, Emaldi auzuneko lagun batek lagundu eustan ubikazioak topatzen eta. Gero jantzari bila hasi ginan. Lehenengo proiektua *Harria Herria* izan zan 2019an. BBK Mendifilm-en aurkeztu genduan eta gero apur bat Dimegaz alkar-tearen bitartez difusioa egin neban.

Arrakasta handia izan eban film horrek.

Bai, aurkeztu neban hainbat lekutan, nazinoarte mailan, estaduan, Euskal Herrian... eta ohorezko menzinoa jaso eban Memorial Maria Luisan eta Los Angeles-en (California) eta Toronton sari bi jaso ebazan, bata film labur onenaren saria eta bestea film musikal onenaren saria.

Eta gero, lehenengo proiektu horregaz sortu zan Txalapart-eri Oreka TXko musikariari propo-

satu neutsen proiektua zuzeneko- kora eroatea. Niri gustetan jata sokatik zintzilikatzea eta naturan jantzatzea eta hau guztiau jant- tzatzeko asmoagaz egin neban. Eta eurakaz eroan neban proiektu hori zuzeneko- kora. Menorkan Pedra Vivan estrenau zan. Itzela izan zan lehenengo esperientzia ha. Menorkan, 30 metroko pare- ta baten, zuzenean eta holango musikariakaz. Ametsa betetea baino gehiago izan zan.

Baina etenaldia egin zenu- duan.

Apur bat agobiauta nengoan. Ametsa amesgaizto bilakatzen egoan eta ebatzi neban ixtea ezin nebalako holan jarraitu. Itxi neban, pasau ziran hilabeteak eta joan nintzan Lisboako uni- versidadera jantza bertikaleko formakuntza bat egitera, Magalie Lanriot jantzariagaz. Asko mires- ten dodan jantzaria da Lanriot. Bitartean, bigarren film laburra egiten hasi nintzan, oindino be lanean nago *Haize Lerroa* film laburrean, Urkiolako bailaran grabetan gabizana.

Zemendiaren amaieran, txarto nengoan, faltan botaten neban zeozer: sortzea, ensaiatzea, jenteagaz alkartzea eta partekatzea... Azkenean onartu neban jantza bertikala, soka eta harria nigaz bat datozen gauzak dirala: eskalatzea eta jantzatzea... ezin naz ondo egon hori egin barik

Alejandra Perez jantzariagaz metraje laburreko filman lanean egon nintzan eta *feeling* handia daukat beragaz, baina hor geratu zan asuntoa. Ondo moldatzen gi- nan, baina film laburrean neukan nik fokoa eta ez neban jarraitu gura zuzenekoakaz.

Hilabete batzuk berandua- go deitu eusten zuzenekoakaz aurrera jarraitzeko baina neuk asmorik ez. Baina zemendiaren amaieran, txarto nengoan, faltan botaten neban zeozer: sortzea, ensaiatzea, jenteagaz alkartzea eta partekatzea... Azkenean onartu neban jantza bertikala, soka eta harria nigaz bat datozen gauzak dirala: eskalatzea eta jantzatzea... ezin naz ondo egon hori egin barik.

Eta orduan zuzenekoetara bueltetea ebatzi zenuan.

Beste dei bat jaso neban, aben- duan uste dot, eta hor ebatzi neban aurrera jarraitzea: Alejan- dragaz, zuzenekoakaz eta Txala- part-egaz, Oreka TXeko txalapar- tariakaz.

Eta Alejandra eta biok buru-

belarri hasi ginan lanean; ordu piloa sartu genduan gauza barriak sortzean, sano gustura. Heldu zan momentu bat jantzari barriak topau behar genduzana. Ondo sentidu arazoten ninduen per- sonak izan behar ziran, proiektua maite eta nire moduan jantza bertikalean pasinoa eukienak. Katalunia eta Madrilgo jantzari bi- gaz *feeling* handia sortu zan. Ga- bonetan proiektuari heltzea eta aurrera jarraitzea ebatzi neban. Urtailaren hasieran jantzariakaz hasi ginan lanean eta oin taldean jente gehiago dago. Sano pozik nago, oin hau taldea dala senti- tzen dodalako.

Harrobi Dantza konpainia sortu zenuan.

Dimegaz sortu neban jantza ber- tikala oinarri eukien ikuskizune- koak aurrera aterateko. Beti na- turan suertatzen ziran koreografia horreek eta proiektu eta *perfor- mance* eta esku-hartze artistiko horreek zabaltzeko asmoagaz. Ebatzi neban desbardintatzea hori: Dimegaz ixtea proiektu horreek aurrera aterateko baina sentitzen neban jantza konpainiak bere identitate propioa behar ebal. Eta holan, alkartea sortu neban lagun bigaz. Harrobi izena ipini neutsan, Dimatik Arteagara joan nintzanen biziten harrobiaren ondoan instalau nintzalako. Ordu piloa sartzean neban han bakarka edo lagunakaz. Harrobi horretan harrobi barri bat egiten hasi gara. Jentea alkartzen da, jente barria dator, probetan, entsegu irekiak egiten doguz normalean... Ko- reografia sorkuntza hasten da naturguneetan, gustura sentitzen garen espazio horreetan. Gero, horreek ensaialekura eroaten doguz Bilbao Kirolak-eko eta Tantai espazioko entsegu lekura eta gero entsegu irekiak egiten doguz lantzean behin.

Oso polita da etorten dan jen- teagaz sortzean dan harremana. Euren eretxia entzutea gustetan jata: zer gustau jakien eta zer ez. Eta proposatzen deusset zintzi- likatzea eta esperientzia probetea.

Zelan hasi zinan jantza bertikalean?

Jantza flamenkoa eta eskaladatik nator. Sasoi haretan bikotekidea neukan eskalatzailea zana eta joaten ginan gradu handiko sektoreetara eskalatzeraz. Nik eskalatzaren dot baina ez hainbeste eta bera ez zan joaten gradu txiki-tarakoetara gradua ez jeistearren. Eta nik, ez aspertzeko-edo, sokea ipini eta saltoak egiten hasi nintzan. Gero Diman mendiko txokotxo bat topau neban han bakarka egon eta zintzilikatzeko.

Ondoren ikastaroak egiten hasi nintzan. Lehenengo Dani Tomasegaz jantza akrobatikoa egiten, gero Ludovica Zoinagaz, gero Juan Leibagaz Madrilan... Jantza bertikala eta akrobaziak egiten ditue. Egin dodan atzen ikastaroa Magalie Lanriategaz izan da Lisboan, eta laster kanpora noa barriro be beste formazino bat egiten.

Garagarrilean, Bilbon Kalealdian egingo dozue zuzeneko bat. Hor natura gitxi.

Dana dala, guk naturan sentiduten doguna trasladau gura deusagatu ikusleari. Musikeak eta letrak lagunduko deuskue horretan. Argiztapenean Carlos Solano nafartarra eukiko dogu.

Bizkaia Aretoan izango da, UPVko eraikinaren kanpoko parteran. Pentsetan dot kalean izan arren, COVID-19aren neurriak dirala-eta, aforoa murriztuta egongo dala; orduan ikusi gura izan ezker, onena izango da apur bat lehenago joatea, gaueko 22:00etan hasiko da.

Amaia Albesek diseinatu ditu jantziak. Goi mailako jantzigintzea egiten dau, Cayetana Guillen Cuervo be jantzi dau, barbarako. Ekaitz Zilarmendi gure argazkilariak aitatu eustan bere izena. Nik aspalditik ezetuten neban eta deitu neutsan eta ipini zan lanean buru-belarri. Datorren as-tean daukaguz jantzi probak.

Zuzeneko emonaldi honetan, Oreka TXen txalapartarien musikea erabilten dogu.

Eta eurekaz zuzenean behar egiteko proiekturik?

Bai, beste proiektu baten lanean gagoz, *Dendu* izenekoan, eurekaz egiten dogu zuzenean. Musikari guztiak etorten dira zuzenean jotera eta guk jantzan egiten dogu. Zuzeneko hori 70 minutukoa da eta espero dogu uda honen amaieran edo estrenau ahal izatea.

Harrobi Dantza Bertikala konpainian, 4 jantzari gagoz. Del Perera, Sara Mohino, Alejandra Perez eta Janire Etxabe. Behar teknikoak egiten, Ekaitz Zilarmendi argazkilaria, Phelipe Eizagirre, naturan egiten doguzan eskuhartze guztiak grabatu egiten dituan eta Carlos Solano argi teknikaria dogu. Aitor Narbalez zuzenekoaren kontratazioak eta antzeko lanak egiten ditu.



Natura mobimentuaren euskarria dala dinozu. Arteak eta naturak bat egiten dabe zuen ikuskizunetan. Zenbat daukie bakotxetik?

Jantza bertikalak eta sorkuntza garaiak, euskal kultura eta nortasunagaz bat egiten dabe gure proiektuetan, paisaia, ingurune eta memoriaren bidez. Eta naturan egindako eskuhartze artistikoak era globalean zabaltzen doguz: zuzeneko emonaldiak, entsegu irekiak, solasaldi jantzuak, formakuntzak eta abar eginaz.

Oinarritzen naz euskal artisten proiektuetan. Aurreko baten izan zan Oreka TX-aren kanta baten eta Arteagako harrobian, andrak zelan harremantzen diran harriagaz landu genduan. *Haize Lerroan* ikus-entzunezkoan Imanol Marrodoan artistearen artelan baten oinarritu gara. Eta *Dendu* proiekturako Mikel Lersundi eskultorearen *Orekaren bila* lanean.

Garagarrilaren 3an lehenengo solasaldi jantzua egingo dogu Aiaraldea Faktorian. Bertan dago lanean Gartzien Garaio, Aiaraldeko Faktoriaren arduraduna da bera eta lagun ona. Proposatu eustan han zeozer egitea. Pareta txikia da eta esan neutsan, "bueno, solasaldi musikatuak egiten diran moduan, solasaldi jantzua egin daikegu jantzari bigaz".

Maiatzean be egin genduan ekintza barri bat, jenteak jantza bertikala probetako. Mendi urtekerak bat izan zan, eta oin eskegiten nazen leku batera eroan nituan, eurak probetako. Sano esperientzia polita izan zan eta oso aberasgarria.

Eta formakuntza ikastaro trinkoak emoten doguz, astegoi-etan, hile birik behin, Txitatokin, Urdaibaiko Zirkuko Eskolan. Baita bi barikutan be hilean.

UDA

KULTURALA

2021 Igorre

BAGILAK 26

Idoia Asurmendi

KONTZERTUA

19:00

Eguraldi onagaz
Goiko plazako
frontoian, txarragaz
Kultur etxean.

Gonbidapenak eskatzeko:
www.igorrekultura.blogspot.com



IGORREKO
UDALA



MENDIA

Euskal Mendizale Federazioak udalekuak antolatu ditu

Erredakzioa

Gorbeia mendian eta inguruetan sei eguneko eta bost gaueko udaleku itxi bi antolatu ditu Euskal Mendizale Federazioak, "beti be, modu egokian garatu ahal izateko beharrezko neurri guztiakaz".

Domestik barikura izango dira. Kanpamentu nagusi moduan, Gorbeia aterpea erabiliko dabe. Kanpamentu horretan egingo dabe lo, eta mantenu osoa izango dabe parte-hartzaileak. Euskera jakitea nahitaezkoa da eta hego Euskal Herriko lau lurralde historikoetako parte-hartzaileak egotea sustatuko dabe.

Programa bi proposatzen dabe, aste desbardinetan egiteko, eta 21 parte-hartzaile izango dira adin tarte bakotzeko. Garagarriaren 4tik 9rako, 8 urtetik 12

urtera bitarteko parte-hartzaileak zuzenduta dago eta garagarriaren 18tik 23rako 13 urtetik 17 urtera bitartekoak.

Parte-hartzaile guztiak federatuta egon behar dira eta eskaerak eskaini daitezkean leku kopurua gainditzen badabe, kontuan hartuko da eskariak zer ordenatan jaso diran eta kontuan hartuko da be, EMFko kide moduan bakotzak dauan antxinakotasuna. Izena emoteko eskariak posta elektronikoz bialduko behar dira helbidera honetara: vitoria@emf.eus. Izen-emotea hilaren 25ean amaituko da. 1.go asteko udalekuak: 2013 eta 2009 urteen artean jaiotako parte-hartzaileak zuzenduta dago (biak barne) eta 2. astekoa 2008 eta 2004 urteen artean jaiotakoak. Prezioa 210 eurokoa da asteko eta parte-hartzaileko.

**PELOTEA**

Hirugarren posturako jokatu dau Zeanurik Herriartekoan

Erredakzioa

Finalerdiak galdu ebazan Zeanurik Markinaren kontra eta hirugarren postua lortzean saiatuko da Herriarteko txapelketan.

Bagilaren 5ean, Markinak 2-1 irabazi eutsan Zeanuriri, etxean. Gazte mailan irabazi eben Zeanurikoak, Emaldik eta Erkiagak 22-9 baina beste partidu biak galdu. Kadeteetan Beitiak eta Egiliorrek 22-18 galdu eben eta Nagusietan Erkiaga I.ari eta Mendiari nagusitu jakiezan Markinakoak 22-8.

Bueltako partiduak, bagilaren 13an jokatu ziran Markinan, emoitza bardinagaz. Izan be, joaneko

partiduetan lege, Gazte mailakoak irabazi eben 22-3, Kadeteetan, barriz, 7-22 galdu eben eta Nagusietan, 22-10 amaitu zan partidu markinarren alde. Beraz, Markina sailkatu da finalerako.

Zeanuri eta Munitibar neurtuko dira hirugarren eta laugarren postuetarako bagilaren 18an, Bilbon.

Etorkizuneko Txapelkunak Txapelketak

Zeanuriko Anton Erkiaga eta Maren Emaldiz gainera, Dimako Xabier Rekalde be konbidau dau Ataun Kirol Elkartek I. Etorkizuneko Txapelkunak Txapelketan parte hartzera.

Txapelketa honetan, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Nafarroa eta Errioxako Kadete eta Promesa mailako pelotari onenak hartuko dabe parte. Txapelketaren egitura 12 aurrelari eta 12 atzelariz osotutakoa izango da. Talde bitan, liga erara, 36 partidu jokatu dira, gehi finalerdiak eta finala.

Promesa mailako bikote irabazleak 500 euro jasoko ditu eta bigarrenak, 300 euro. Kadete mailan barriz, 400 eta 200 izango dira sariak.

FUTBOLA

Arratiak kategoriari eutsi deuto

Atlético Revellin taldearen kontra hilaren 12an Urbietan lortutako garaipenak ekarri eutsan Arratia taldeari kategoriari eustea.

Erredakzioa

Arratia taldeak bagilaren 6an 1-5 irabazi eban UD Logroñes taldearen kontra etxetik kanpo, eta bagilaren 12an 2-0 irabazi eban Atlético Revellin Logroño taldearen kontra Igorreko Urbietan zelaian. Atzen partidu hau irabazi beharra eukan Arratiak kategoriari eusteko eta lehen minutuan sartutako Aitana Regueroren gol batez arratiarrak 1-0 aurreratu ziran arren, tensino eta urduritasun handiko partidu izan zan. Bigarren zatia amaitzeko 10 minuturen faltan lortu eban Nerea Beitiak lasaitasunaren gola. Bero handia egin eban egun horretan eta zati bakotzeko 30. minutuan geldialdia egin eben jokariak hidratetako. Partidu amaieran itzelezko poza hartu eben bai jokariak baita zelaitik kanpo partidu segidu eben 70 lagun inguruk eta txalo zaparrada itzelagaz agurtu ebezan jokariak. Momentu hunkigarria izan zan bertan bizitakoa. Gainera egun horretarako jokariaren senitartekoak eta Arratia taldeko arduradun batzuk agertzen ziran bideoa egin eben entrenatzaileak animoak emoteko.

Partidu amaieran hauxe adierazo eban Arrate Arrieta kapitainak: "Gaurko partiduan jokatzan izan dogu liga honetan segidutea hurrengo urtean, liga hasieran eta liga erdian be ez genduan pentsetan aukera hau eukiko genduanik, taldeari, entrenatzaileari, koordinatzaileari eta harmailari esker hamar partidu emon doguz galdu barik, dana burukatuten. Gaurko partidu sano garrantzitsua zan, taldeak ahal izan dauan guztia egin dau eta hiru puntuak etxean gelditu dira eta permanentzia be bai. Orduan ba poz-pozik gagoz".

25 jardunaldiren ostean eta ligea amaitzeko partidu bakarra falta danean, sailkapenean bosgarren postuan dago Arratia 35



puntugaz.

Ligako atzen partidu Mulier taldearen kontra jokatu dabe etxetik kanpo, bagilaren 20an goizeko 11:00etan.

Amaiera sano ona

Ez da urte erraza izan taldearentzat, aurreko denporaldia, konfinamentuak eten egin eban bat-batean; "aidean gelditu zan dana eta amaiera txarra izan zan" adierazo eutsan Naia Totorikak aprilean BEGITU. Ondoren, joka-

lari askok itxi egin eben taldea eta bat-batean jokari piloa falta zan. Entrenatzailea be aldatu egin zan eta asko kostau zan ekipoa lortutea. Taldea osotutako, kante-rako jente gaztea hartu behar izan eben, kadeteetatik zuzenean sartu zana be badago. Eta esperientzia falta hori igarri egin zan. Aldaketa horreez guztiakaz, ligea hasi zanean emaitzak txarrak izan ziran. Baina taldea horrerri buelta emoten hasi zan eta bigarren fase oso ona egin dau.

ERRUGBIA

Atzenaurreko partidu irabazi dau Gernika-Arratiko Rugby Taldeak

Erredakzioa

Bere taldeko hirugarren dago Gernika-Arratiko Rugby Taldea, ligako atzenaurreko partidu Kanpazar Arrasate-Ordizia RT taldearen kon-

tra, Gernikan, 34-12 irabazi ostean. Atzenengo partidu Sara Izarra liderraren kontra jokatu dau 19-20ko astegoienean.

Sensazio onak ditu Jon Gurtubai Gernika-Arratiko taldeko jokari

eta entrenatzaileak eta "aurreikuspen sano onak" egiten dituala datorren denporaldirako azaldu deuto BEGITU. Izan be, atzen entrenamentuan 15 jokari batu ziran, etorkizuna daukan seinale.

PELOTEA

Amaia Aldai Nafarroako txapelketako finalerdietarako sailkatu da

Erredakzioa

Bagilaren 13an lortu eben Emakume Master Cup-eko, Nafarroako Foru Komunitate Torneoako finalerdietarako pasea Tafallan, Amaia Aldaik eta Naroa Agirrek, Iera Agirre eta Arrate Bergarari 22-8 irabazi ostean. Hilaren 20an, Uharte Arakilen jokatu dabe finalerdietako partidua Andrea Aldaregia eta Maitte Ruiz de Larramendiren kontra.

Aldaregia eta Ruiz de Larramendi, Ainhoa Ruiz de Infante eta Oihana Orbegozori 22-17 irabazi ostean sailkatu ziran. Beraz, Txu-



Amaia Aldai.

muluxuetako Ainhoa Ruiz de Infante ez da sailkatu finalerdietarako.

Plazaz Plaza Txapelketea

Ados Pilotak antolatutako Plazaz Plaza Txapelketan barriz, Txumuluxuetako Ainhoa Ruiz de Infante eta Olatz Ruiz de Larramendi, Olatz Arrizabalaga eta Ane Mendiburugaz neurtu ziran Otxandion bagilaren 13an eta 19-22 galdu eben.

Amaia Aldaik eta Uxue Oses-ek hilaren 23an jokatu dabe Plazaz Plazako lehenengo partidua, Irantzu Etxebeste eta Naroa Agirreren kontra Mutiloan.

Txapelketa honetan zortzi bikote neurtuko dira, kanporaketetan talde bitan bananduta. Talde edo multzoko onenak zuzenean finalerdietara sailkatuko dira eta talde bakoitxeko bigarren eta hirugarren sailkatuak final-laurdenak lehiatuko ditue garagarilaren 24an eta 25ean. Finala, abuztuaren 14an jokatu da.

PELOTEA

Ekhi Ziarrusta dimoztararak eta Asier Aspuru jantzi eben Euskal Herriko Federazinoen arteko trinketeko txapela

Gipuzkoa, Errioxa, Araba, Bizkaia, Nafarroa eta Iparraldeko Federazinoen arteko (GRABNI) Trinketeko Binakako Txapelketea Bizkaia irabazi dau.



Asier Aspuru eta Ekhi Ziarrusta.

Erredakzioa

Bizkaiko ordezkariak, Ekhi Ziarrusta dimoztararak eta Asier Aspuru, txapela jantzi eban bagilaren

6an, finalean Gipuzkoako Maiz eta Gurutzalderen kontra irabazi ostean Abadiñoko Tornosolo Trinketean.

Aurten txapelketa espres bat jokatu da, finalaurrekoak eta fi-

nalak bakarrik. Bizkaitarrak erraz gailendu ziran, beste maila baten jokatu dabela erakutsiz. Finalaurrekoetan, Ekhi Ziarrustak eta Inhar Ugartek ordezkatu eben Bizkaia eta 40-5 irabazi eutsien Villanuevak eta Santamariak osotutako Nafarroako bikoteari.

Finala be erraz irabazi eben bizkaitarrak Gipuzkoaren kontra 40-9 irabazi eben eta.

Bizkaiko Txapelketea

Ekhi Ziarrusta, Durangoko Txaber Zabalagaz bikotea osotuz, Bizkaiko Trinkete Txapelketako finalaurretarako sailkatu da, zazpi bikote osotutako ligaxkea jokatu ondoren. Abadiñon, bagilaren 20an jokatu dira finalaurrekoak.



Adi, laster...
begitu.eus

KONTZERTUA

Heavy metal musikea Zeberion

Erredakzinoa

Onakaos Kultur Elkartek eta Zeberio Udalak antolatuta, Mikel Bizar musikariak, metal estilo desbardinatuko kanten bersinoak eskainiko ditu bagilaren 19an, 12:30ean, Plazako aterpean.

Aurten be ez da Zeberiometal jaialdirik egingo. Ez behintzat aurreko urteetan izaten eban formatuan: metal talde pare bat eta hainbat

ekintza. Baina musika mota honen zaleak, kontzertu batez gozatzeko, Mikel Bizar musikariaren emonaldia antolatu dabe. Mikel Bizar musikagile basauriztarra, Idi Bihotz, Jare eta Auritz taldeetako partaidea da.



KONTZERTUA

Bitartean folk taldea Artean

Erredakzinoa

Bagilaren 19an, 20:00etan, Bitartean folk taldeak kontzertua eskainiko dau Arteako frontoian. Aldez aurretik izena emon behar da udaletxean.



Talde hernaniarra 2012an sortu zan eta disko bi ditu katean. Bigarrena, *Kreole* izenekoa aurten kaleratu dau eta Euskal Herria eta Argentinako musika herrikoiak batzean ditu. Gitarra-ekarriko ditu Argentinako

soinuak; akordeoiak, perkusi-noak, txistuak eta albokeak barritz, Euskal Herrikoak.

Sebastian Ustarrozek, Garazi Navasek, Ixiar Jauregik eta Haritz Ezeizak osotuten dabe taldea.

Diskoa eta bideoklipa

Kreole diskoan hamahiru kantu dagoz: *Zituene*, *Adiorik ez*, *A San Telmo*, *Jostun askearen fabula*, *Arrimando*, *Urruntasuna*, *Dedos de otro mundo*, *Prologueando*, *Ez dezadan ahaztu*, *Denak ez ziren indiano*, *Volvétxe*, *Aduna* eta *Arano*. Diskoaren azala Ainhoa Azpiazu "Axi" ilustratzaileak egin eban. Igazko udan *Denak ez ziren indiano* kantuaren bideoklipa grabau eben Ttarla taldeko jantzariakaz.

DIMETAL

Aurten be ez da Dimetal egingo

Erredakzinoa

Urri lehenengoaren 24 eta 25ean Dimetaleroak Kultur Elkartea Dimetal Fest-en seigarren emonaldia

ospatutekoa zan, 2020an atzeratu zan kartel berari eutsita, baina metal musika jaialdia ezin izango da egin. Izan be, ezarri behar diran eukiera eta kontrol neurriakaz, ez dirala kontu ekonomikoak urteten eta ez dituala helburu eta behar-rrizanak beteten adierazo dabe antolatzaileak.

"Pandemiak hor jarraitzen dau eta atzen urte eta erdian guztiok sufridu doguzan murrizketak

arindu edo txertaketa erritmoa hobetzen bada be, ez da posible jaialdi hau egitea. Izan be, ekitaldi hau beti bezala egiten ez bada ez dau merezidu aurrera egiterik" jakinarazo dabe. Erositako abonuen zenbatekoa osorik eta zuzenean itzuliko da, ordainketa egin zan modu berebean.

Antolatzaileak esker ona adierazo deutsee taldeai, emondako erraztasun guztiakaitik. Izan be,

aurten egin behar zan jaialdian igazko kartela mantendu gura eben eta taldeak urtebete baino gehiago egon dira zain, aurten be jaialdia bertan behera geratuko zala jakin arte.

Bueltea, maskarea eta distantzia bako etorkizun baten

COVID-19aren aurreko normaltasunera itzuli eta, jaialdiak eskatzen dauan mailan, seigarren edizino

bat prestatzeko baldintzak beteten diranean, prestatuko dabela dinoe Dimetaleroak Kultur Elkar-tekoak. Hau da, "maskareak irri-barrea ezkutatu ez eta senak ez deuskun lagunakazko distantziarik mantentzera bultzatzen" egunean, "lo luzetik" esnatuko da Dimetal Fest jaialdia, inoz baino biziago. Bitartean, beharrean jarraituko dabe jarduerak eta ekitaldiak eskaintze-ko moduaren bila.

begitu

ez da debalde

Emon gitxi, eta jaso asko. Badira, zure diru apur bat merezidu daben berbak. Izan zeu be Begitu-laguna!

www.begitu.org

338

begitu 18

Leire Ajoia Setegalen izandako optikan ubidestamari aharizketak

Alex Taikon liburua eta dokumental prestaten dago

BEGITUK hamazortzi urte bete ditu

Nagusi egin da sekutu eta samiki presentzia indarra gara daz

Dimako leialdeko Polita Txapela antolatzen hasi da

Osoan Añitak hobera egin dau baina etxetara itzuli izan dabe

begitu

ANTZEZLANAK

Pailazoak Lemoako kiroldagian eta antzerkia Kotxepin Kultur Etxean



Porno vs Afrodita.

Erredakzinoa

Bagilaren 18an, 18:30ean, Potx eta Lotx pailazoak *Etxean* ikuskizuna eskainiko dabe Lemoako kiroldagian. Hilaren 27an, barriz, Benetan Be antzerki konpainiaren *Porno vs Afrodita* antzezlanaren egongo da ikusgai 19:00etan Kotxepin Kultur Etxean. Hilaren

22ra arte emon daiteke izena www.lemoa.net webgunean.

Josu Zubia, Itziar Arkauz, Danel Teran eta Ander Murillok osotuten dabe Potx eta Lotx pailazo talde oinartiarra. Familia osoari zuzendutako ikuskizunak egiten ditu talde honek eta batez be umeentzako emonaldiak izan arren, helduentzako keinu ugari

egiten dabez euren lanetan. Potx eta Lotx, Algaraz alkartearen babespean egindako proiektua da. Algaraz 2016. urtean sortu zan Oñatin, pailazoen begiradea mundura zabalduteko.

Heziketa sexual afektiboa eta rock and rolla

Benetan Be konpainiak Kotxepin Kultur Etxean antzeztuko dauan *Porno vs Afrodita*, heziketa sexual eta afektiboa ardatz hartuta, helduai eta heldu ez diranai zuzendutako, zuzeneko musikaz betetako antzerkia da. Rock and rolla, barreak eta pasinoa ez dira faltauko ikuskizun honetan.

Patricia Urrutiaren proiektua da Benetan Be konpainia. Bera da antzezlanaren egilea eta Elena Olivieri eta Pablo Ibarluzeagaz *Porno vs Afrodita* lanaren zuzendaria. Aktore lanetan, Patricia Urrutia, Juanjo Otero eta Ion Zumelaga izaten dira. Asier Ituarte egin dau lan honen musikea.

LEHIAKETEAK

Berbalagunak III. Tortilla Txapelketea egingo dabe Lemoan

Erredakzinoa

Ikasturteari amaierara emoteko, atzen urteetan legez, Tortilla Txapelketea egingo dabe Arratiako Berbalagunak, bagilaren 18an, 19:00etan, Lemoako Batzoki atzeko parkean. Izena hilaren

15a baino lehen emon behar da <https://labur.eus/IIAkl> helbidean.

Izena bakarka zein taldeka emon daiteke eta tortillak egiteko osagaiak eta tresnak partaideak eroan behar dabez. Ez ordea, mahaiak eta aulkiak, bertan dagoz eta.



DUNBA

Areatzako eskolako LH2ko ikasleok Iruñeako planetarioa bisitatu dogu

Areatzako eskolako LH2ko ikasleak

Maiatzaren 27an, espazioari buruz gehiago ikasteko asmoz, antolatu dogu bidaia hau.

Gure proiektua "Lurra planeta" izan danez, bidaia hau antolatu dogu. Talde bakotzak gauza baten ardura hartu dau: planetarioaren erreserba, oharra, autobusa, ingurua, baimenak, ordutegia... eta prestaketa luze baten ostean,

planetarioa bisitetea lortu dogu.

Goizeko 09:45 inguruan, Iruñeara abiatu ginan. Bidaia oso luzea izan zan, ordu eta erdikoa giti gorabehera. Bertara 11:20ean heldu ginan.

Planetarioaren aurrean Yamaguchi izeneko parke handi bat dago eta urmael eder bat dago bertan. Egindako eguraldi izugarria aprobetxauz, jolastu eta hamaiketako jan genduan Pla-

netariora sartu aurretik.

Planetario barruan gela handi baten sartu ginan. Gela zirkularra zan, kupula handi bat egoan eta etxunda egozan aulkiak aurkitu genduzan. *Amamalur*

UDA KULTURALA

Idoia Asurmendiren kontzertua Igorren

Uda Kulturala, udarako prestatutako programazinoaren barruan dago kontzertu hau.

Erredakzinoa

Idoia Asurmendik bagilaren 26an, kontzertua eskainiko dau 19:00etan Goiko Plazako frontoian eguraldi ona bada eta Kultur Etxean txarra bada. Igorreztarrak daukie lehentasuna konbiteak hartzerako orduan. Konbiteok www.igorrekultura.blogspot.com helbidean eskatu behar dira data hurbildu ahala.

Abeslariak oin dala ia hiru urte hasi ebazan musika-pedagogia ikasketak Musikenen, Euskal Herriko Goi-mailako Musika Ikastegian. Betidanik bizi izan da abestiz inguratuta, eta txikitatik hasi zan etxeko instrumentuak

jolasean. Institutuan ezetu eban Maria Oses poeta, eta holan jaio ziran Idoiaren lehenengo konposizinoak.

2020an, bere lehen diskoa jantziko eban taldea sortu eban eta 2021eko apirilean argitaratu eban *Ilun eta abar*, bere lehenengo lana.

Aurreko udan ikusi ahal izan zan bere kasua euskal eszenako berezietakoa dala. Abestirik argitaratu barik, ahoz aho zabaldu zan bere izena, eta sarrera guztiak agortzea lortu eban kontzertu nabarmenetan, Jazaldian, Chillida Leku Museoa edo Donostia Festibalean, berbarako.

LEHIAKETEAK

Jose Miguel Arranz-en Torreko etxea margolanak irabazi eban Zeanuriko pintura lehiaketea

Erredakzinoa

Hamaika lagunek hartu eben parte Zeanuriko Aire Zabaleko III. Margolan Lehiaketan eta udalerriko txororik ederrenetatik banandu ziran, parajeetako erretratuak egiteko. Sari nagusia, Jose Miguel

Arranzek eskuratu eban *Torreko etxea* lanagaitik; publikoaren saria, Iker Mugarrarentzat izan zan, *Arrabalde* izenekoagaitik eta zeanuriztar baten lanik onena Amaia Mendibilena izan zan.

Sariak, Javier Perez pintura taldeko arduradunak emon ebazan.



Egun ederra eta esperientzia polita izan zan, gure ustez oso bisita gomendagarria.



AGENDEA

BAGILAK 16
ARRATIA

Bagilaren 25era arte, Euskal Mendizale Federazioak Gorbeian antolatutako Mendi udalekuetan izen emotea federauta dagozanentzat. Garagarriaren 4tik 9ra: 2013 eta 2009 urteen artean jaiotako parte-hartzaileai zuzenduta (biak barne). Garagarriaren 18tik 23ra, 2008 eta 2004 urteen artean jaiotako parte-hartzaileai zuzenduta (biak barne). 210 euro aste eta parte hartzaile bakoitzeko, mantenu osoa barne. Izena emoteko eskariak eta informazio gehiago *emf.eus* webgunean.

ARTEA

Bagilaren 29an egongo dan oin eta behatzen estetika zerbitzurako hitzordua hartzeako 94 673 92 05 edo 94 673 92 17 telefonora deitu.

BEDIA

Hilaren 18ra arte, 10:30etik 12:30era udaletxean eta 16:30etik 19:30era liburutegian, jaietan, balkoi edo leihoetan ipinteko jaietako zapia jaso.

Hilaren 18ra arte, 16:30etik 19:30era, jaietako ikuskizunetan parte hartzeako izen emotea liburutegian. Ikuskizunak: bagilaren 23an, Deabru Beltzak; 25ean, Tio Teronen semeak eta 26an, *Trakamatraka*.

Urri lehenengoaren 17ra arte, Udan be irakurten. Bialdu argazki bat irakurten *liburutegia@bedia.biz* helbidera edo 636 325 578 WhatsAppera, "Udan be irakurten" esaldiagaz, izen-abizenak, argazkia noz eta non eginda dagoan eta argazkian agertzen dan liburua ea gomendatzeko dan esanez.

LEMOA

08:00etatik 21:00etara, astelehenetik domekara Kotxepineko ikasgela zabalik.

Egunean behin Lehiaketako 7. edizinoa. Jeitsi aplikazinoa, erabili 204F9E kakoa taldean sartzeako. Sariak Lemoako establezimientuetan gastetako bonuak. Parte hartzeako Lemoan erroldatuta egon behar da.

Bagilaren 22ra arte, 27an izango dan *Porno vs Afrodita* antzerkirako izena emoteko epea *www.lemoa.net* udal webgunean.

Hilaren 24ra arte, Jatorri Desbardinetako Esperientzietarako izena emoteko epea *www.lemoa.net* webgunean, sare sozialetan edo 688 661 477 WhatsAppen.

ZEBERIO

17:00etatik 19:00etara, astelehenetik barikura liburutegia barriro be zabalik.

BAGILAK 17
ARANTZAZU

18:30ean, *Emakumeen aurkako indarkeriak telesaiotetan* tailerra Skolastikaren eskutik Kultur Gunean. Izena aldeztu aurretik emon udaletxean edo 94 631 56 89 telefonoan.

LEMOA

Bagilaren 24ra arte, 28an izango dan Bollo bertso saiorako izena emoteko epea *www.lemoa.net* udal webgunean.

BAGILAK 18
AREATZA

18:00etatik 20:00etara, Gure Eskuk antolatuta, Hamaika Gara erreferendumaren alde sinatuteko mahaia plazan.

ARTEA

18:30ean, Umeen euskal jantza ikuskizuna frontoian.

IGORRE

20:00etan, atea zabaltu Haxotz taldearen kontzerturako Kiñu Gaztetzeari. Sarrerea euro bi. Edukiera mugatua.



LEMOA

18:30ean, Potx eta Lotx pailazoak *Etxean* klown familia ikuskizuna kiroldegian.

19:00etan, III. Tortilla Txapelketa Batzoki osteko parkean. AEK-ko Berbalagunak antolatuta.

BAGILAK 19
ARRATIA

Arratiako eleizak antolatuta, Urkiolara

errogatibea. Oinez 06:00retan, Igorre eta Diman; 07:30ean Zeanurin. 11:00etan, Urkiolako santutegian.

ARTEA

20:00etan, Bitartean folk taldearen kontzertua frontoian. Izena aurretik emon udaletxean.

ZEBERIO

12:30ean, Zeberiometal. Mikel Bizarren metal covers plazako aterpean.

BAGILAK 20
ARTEA

12:00etan, sendabedarraren ukendu tailerra. Elexabeitin alkartu eta ibilalditxoa Arteako inguruetatik. Sendabedarrak identifikatu eta batu ostean ukendua egingo dabe. Gidaria Haizea Quintos Mendizabal. Izena *arteako.kokomarroak@gmail.com* helbidean emon.

20:00etan, Elexabeitin, 20:45ean Gaztelun eta 21:30ean, herriko plazan Udari ondo etorria. Izena *arteako.kokomarroak@gmail.com* helbidean emon.



Harrotasun lesbikoaren inguruko bertso saioa Lemoan

Arratiako Udalen Mankomunitateko Bardintasun Arloak antolatuta, Bollo bertso saioa egongo da, bagilaren 28an, LGTBI Harrotasunaren Nazinoarteko Egunean, 19:00etan, Kotxepin Kultur Etxean. Haizea Arana eta Saioa Alkaiza izango dira bertsolariak eta Amaia Agirre gai emoile beharretan ibiliko da. Izena, hilaren 25era arte emon daiteke *www.lemoa.net* udal webgunean.

Ez da lehenengo aldia, hiru bertsolari feminista honeek batzean dirala bertso saio baten. Izan be, hirurak parte hartu eben andra bertsolariak alkarregaz eta feminismotik kantetako sortutako Señora Sariketako lehen edizinoan. Amaia Agirre izan zan irabazlea eta gaiak emoten ibiliko da Lemoan. Haizea Arana eta Saioa Alkaiza be egon ziran finalean.

Ustrukuaren koloreak izango ditu bertso saioak eta umorez eta intelijentziaren lesbianen istorio, gorabehera eta aldarriak hartuko dabe protagonismoa.



LEMOA

Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta, BMFren xendazaletasun liga-PRBI56 Lemoatxa 1937-erresistentzia gunea Aspunta (365 m)-Lemoatxa/Gantzabal (363 m). Izena emon *https://bmf-fvm.org/liga-senderismo-bizkaia/* helbidean.

BAGILAK 21
ARTEA

09:00etan, Jubiladuen alkarteak antolatuta, mendi ibilaldia. Plazan. Plazea-Santamañe, Mendieta-Sarasola-Kukutxe-Argiñao-Bizkarre-Arantzazu-Industrialdea-Plazea. Bakotzak bere ura eta jatekoa eroan behar dau.

Udalekuak garagarriaren 16ra arte. **ZEBERIO**

18:30ean, Zeberio Musika Eskolako umeen kontzertua parrokan.



BAGILAK 22
BEDIA

Liburutegiaren eta ludotekearen zerbitzuak zarratu, urri lehenengoaren 6ra arte.

BAGILAK 23
ARTEA

21:30ean, San Juan sua Santamañen. **BEDIA**

Sanjuanak. 20:00etan, jaien hasierako txupinazoa; 21:00ak aldera, Deabru Beltzak taldearen ikuskizuna; 23:00etan, soloan San Juan sua egin ezker, bialdu argazkia Udalera, ezpabere urten leihora kandela edo linterna biztuta.

LEMOA

San Juan bezperea. 20:00etan, Bitartean Folk taldea eta Ttarla jantza taldea Elizondoko Kulturguneko plazan. Edukierak bete arte.

UBIDE

San Juan jaiak. 17:00etan, arbolearen bila; 19:00etan, arbolea plazan ipini; 23:00etan, sua.

BAGILAK 24
BEDIA

Sanjuanak. 11:00etan, meza nagusia; 17:00etatik 19:00etara, umeentzako tailerrak plazan.

UBIDE

San Juan jaiak. 13:00etan, kopautxoa.

BAGILAK 25
AREATZA

18:00etatik 20:00etara, Gure Eskuk antolatuta, Hamaika Gara erreferendumaren alde sinatuteko mahaia plazan.

BEDIA

Sanjuanak. 18:00etan, Bingo-kafea

begitu 364
2021eko bagilaren 16a

plazan 18 urtetik gorakoentzat. Kafea eta pastak jai batzordearen kontura; 20:30ak aldera, (ordua zehaztu barik) Tio Teronen semeak taldearen ikuskizuna.

UBIDE

San Juan jaiak. 18:30ean, Sakatu elektrotxarangea. Estatikoa; 20:00etan, herriko ume eta gazteen jantzea.

BAGILAK 26
BEDIA

17:30ean, Bediako euskal jantza taldea eta gimnasia erritmikoa; 19:00etan, *Trakamatraka* musika tailerra eta ikuskizuna; 21:00etan, jaien amaierako txupinazoa.

IGORRE

19:00etan, Idoia Asurmendiren kontzertua Uda Kulturala programearen barruan Goiko Plazako frontoian eguraldi ona bada, txarra bada Kultur Etxean. Igorretarrak daukie lehentasuna konbiteak hartzerako orduan. Konbiteok *www.igorrekultura.blogspot.com* helbidean eskatu behar dira.

UBIDE

San Juan jaiak. 11:00etan, oreka lantzea helburu daukan tailerra Inguru Abenturaren eskutik; 16:30ean, Ubideko familien historia: Ikerketa genealogikoaren aurkezpena; 18:00etan, Cía. Barsantiren *Kale gorrian* kale antzerkia.

BAGILAK 27
LEMOA

19:00etan, antzerkia *Porno vs Afrodita* Kotxepin Kultur Etxean.

UBIDE

San Juan jaiak. 12:00etan, *Trakamatraka*. Material birziklatuakaz egindako musika tresnakaz ikuskizuna eta tailerra umeentzako; 19:00etan, Idoia Asurmendiren *Ilun eta abar* diskoa aurkezteko kontzertua; 20:00etan, herri parrilladea. Ostean, atzen traka.

BAGILAK 28
BEDIA

Garagarriaren 9ra arte, Udalak antolatutako Txiki-Txokoa eta udaleku irekiak.

BAGILAK 29
ARTEA

Oin eta behatzen estetika zerbitzua. **DIMA**
San Pedro jaiak. 85 urtetik gorakoai omenaldia. **ZEANURI**
San Pedro jaiak Undurragan. 11:00etan, mezea; arrastian, Txatonean umeentzako eta nagusientzako Bolo Txapelketea; 20:00etan, jaien amaierara txokolateagaz.

BAGILAK 30
ARTEA

18:00etatik aurrera, Kakorrazagaz artistak gehi barriketaldi feministak. Esku eta hariakaz abila bazara edo ikastekoa gogoa euki ezker plazarara huirbildu. Materiala antolatzaileen kontu. Kafrangak andra taldeak antolatuta.

DIMA

19:00etan, *Ekin alkarregaz* liburuaren aurkezpena eskolako kamaran. Txumulueta Kultur Elkarteak antolatuta.

KOMIKIA

Kailo
Ren



IRAGARKI LABURRAK

DANERIK

KLASEAK EMOTEN DIRA

Matematika, Euskera eta Gaztelania klase partikularrak emoten dira online zein modu presentzialean, Lehen Hezkuntza osoa eta DBH 1. mailako ikasleentzako. Interesdunak deitu 646 447 988 telefonora.

LANA

ELIKADUREA ETA NUTRIZINOAN ADITUA

Elikatze ohitura konziente eta osasuntsuak jarraitzen lagunduko deusut; horretarako, plan personalizatu egingo deusut heziketa nutrizional, *coaching* edota *mindful eating*-a oinarritzat hartuz. Hartu-emonetarako: narao_esparza@hotmail.com (lehen hitzordua doban).

TABERNAN LAN EGITEKO PREST

Astegoien eta jaiegunetan tabernan lan egingo neuke Arratia edo inguruetako herrietan. Arloan esperientziaduna naz. Interesautu egon ezkeru idatzi

konpromiso barik 619 893 185 telefonora.

LAN EGITEKO PREST

Nikaraguako andra heldua, lan egiteko prest. Persona nagusien zaintzan hainbat urte ibilitakoa. Behar izan ezkeru deitu 648 470 485 telefonora.

SALTZEAN DODAZ

Fagor etxeko labadorea, Class A+A, LF-1106, 1.000 erreboluzino, 6 Kg. 50 euroan, eta Aspes etxeko hozkailua, Ideal modelo, goikaldean izozkailua daukana eta behekaldean hozkailua, 100 euroan. Telefonoa: 616 634 306.

LAN BILA

Adineko personak zaintzean ibilitako andra kubatarra lan bila dabil. Barruko neska edo bestela. Telefonoa 688 849 089.

Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat begitu@topagunea.com helbidera. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

begitu

1
Garena Jatetxeak emondako txakolin kajatxoa.

Rakel Iruarizaga (Arantzazu)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. BEGITUK 19 urte eta ehundaka lagun.

94 631 73 14 | www.begitu.org | begitu@topagunea.com





**arratia
ubide
zeberio**

**BAIETZ
50 LAGUN
BARRI EGIN!**

2021EAN EGIN ZAITEZ BEGITU-LAGUN! BEGITU-LAGUN EGITEAK SARIA DAKKA!

Begitu aldizkariaren asmoa eten barik hobetzea da, beti be Arratia-Ubide-Zeberio inguruko euskerazko aldizkaria euki daigun. Baina horretarako baliabide ekonomikoak indartu behar doguz, Begitu bere buruaren jaube izan eta etorkizunari bermez eutsi ahal izateko. Horretarako **2021ean egin zaitez Begitu-lagun!** kanpaina abiatu gura dau Begitu aldizkaria argitaratzen dauan Zertu Kultur Elkarteak, eta helburua argia da:

Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekari euskalduna babestuko dozu?



Oindino Begitu-laguna ez bazara, eta Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekaria babestu gura badozu, bete egizu beheko formularioa eta bialdu honako helbidera:

Zertu Kultur Elkartea Herriko plaza 24. 48142 Artea.

Izen-abizenak: _____

Helbidea: _____

Telefonoa: _____ Helbide elektronikoa: _____

Kontu korrontearen zenbakia: ES _____

Aukeratu urteko kuotea: ☐ 35€ ☐ 55€ ☐ 75€

*Gainera Begituren produktu honeek helduko jatzuz etxera doban.

Edo e-mailez, bialdu datuok: begitu@topagunea.com helbidera.



begitu

**Oin Estudio Duendek BEGITUrako
publizidadea diseinatzeko deus.**

Publizidade eksklusiboa, zure enpresea IKUS arazoko dauana.
Eta diseinua zuk gura dozun lekuan erabilteko aukerea eukiko dozu
(beste aldizkari batzuk, internet...).

1. AUKEREA

Diseinua +
4 aldiz modulo 1 BEGITU

95€*

2. AUKEREA

Diseinua +
4 modulo BEGITUko portadan

135€*

Publizidadea:
649 979 115

*Prezio honeei BEZa gehitu behar jakie.

LEHOA
946 31 44 06
ZABAL@ALKIZABAL.NET



LEHOA - BASAURI
www.alkizabal.net

BASAURI
946 31 03 99
BASAURI@ALKIZABAL.NET

MAKINEN ALOKAIRUA ETA SALMENTA



